

**B**  
Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea



azkunazentroa.eus

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

PROGRAMA  
EUSKARA

URRIA AZAROA ABENDUA 2021



**B**ilbao

gizartea eta kultura  
garaikidea

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

# Jar zaituz harremanetan

## Az-rekin

azkunazentroa.eus

Artea: [programacioncultural@azkunazentroa.eus](mailto:programacioncultural@azkunazentroa.eus)

Deialdiak: [deialdiak@azkunazentroa.eus](mailto:deialdiak@azkunazentroa.eus)

Erabiltzaileentzako arreta: [info@azkunazentroa.eus](mailto:info@azkunazentroa.eus)

944 014 014

PLAZA ARIKIBAR, 4  
48010 BILBAO



*«Ikusleari oso aukera gutxi ematen zaizkio: Sartu, begiratu eta geratu aho zabalik. Bere pentsamendua piztu behar da»*

**Isidoro Valcárcel Medina**

***Arquitecturas prematuras (Arkitektura goiztiarrak) erakusketa***

2022eko maiatzaren 10etik irailaren 18ra arte  
Lantegia. Ideien laborategia



- 6 *Denboraldi berria garai berri baterako.* Fernando Pérez. Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko Zuzendaria
- 8 *Roma Akademia: 45 begirada Bramanteren Tenplutxotik*
- 12 Komikiaren Nazioarteko Egonaldi berria
- 14 Gizarte inklusioari eta arte eszenikoen hezkuntzari buruzko XIII. jardunaldiak
- 16 Ailantok bat egiten du dendAZ saltokiko diseinatzaileen komunitatearekin
- 18 Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

## PROGRAMAZIOA

### /Arte bisualak

- 22 *Roma Akademia.* Erakusketa
- 24 Maider Aldasoro. *Aurrean goxo.* Instalazioa
- 26 Karlos Martínez. *Plan K. Güt.* Instalazioa

### /Arte garaikidea

- 28 Sands Murray-Wassink. Performancea
- 30 *Sra. Polaroiska.* Emakume jakintsuen kontseilua. Artista Azkideak

### /Arte biziak

- 32 Irati Inoriza. *Nadie se baña dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo.* Solasaldia
- 34 Iker Vázquez. *Az Reality Lab.* Errealitate birtualaren instalazioa
- 36 Les Impuxibles *Suite TOC n° 6.* Dantza
- 38 Cía. Colectivo Mur. *Detuatu.* Zirkua
- 40 Cía. Daniel Abreu. *La desnudez.* Dantza
- 42 Núria Guiu. *Spiritual Boyfriends.* Dantza
- 44 Francisco López. *Criaturas Sónicas.* Musika esperimentalak
- 45 John Richards. *Musika esperimentalak*

### /Zinema eta ikus-entzunezkoak

- 46 Laida Lertxundi. *8 Toapeketa.* Zinema eta ikus-entzunezkoak
- 48 Film Sozialak. *Zinema eta ikus-entzunezkoak*
- 48 Zinemakumeak Gara. *Zinema eta ikus-entzunezkoak*
- 49 63° Zinebi. *Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia.* Zinema eta ikus-entzunezkoak
- 50 Zinemateka. *Jean-Pierre Melville. Gaua, katuak eta jazzak*





- 54 Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan. Zinema eta ikus-entzunezkoak
- 57 Kinu#6 Ute Aurand Tractora Koop. E. Kolektibo egoiliarren programa
- 58 Gau Zuria. Penique Productions. Hutsean ontziratzen
- 59 Bilbao European Encounters 2021. Gizartea

#### **SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK**

- 62 Aimar Arriola. *Forma-desira*. Ikertzaile Az-Kidea
- 64 Isabel de Naverán. *Uhina gogoan*. Ikertzaile Az-Kidea
- 66 Babestu: 2021eko deialdia: hautatutako proiektuak
- 68 Artista eta ikertzaile Az-Kideak
- 70 Kinu. Tractora Koop. E. Kolektibo egoiliarren programa
- 71 Deialdiak eta egonaldiak 2021-2022

#### **HEZKUNTZA PROGRAMA**

- 74 Komikiteka. Komikiari buruzko ezinbesteko elkarrizketak
- 74 Bilbao Argazki
- 75 Txikitekako esperientzia berriak
- 76 Soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak. Tailerra
- 76 Rafael Martínez del Pozo. Tailerra: *Escuchando, hacia una música anterior a sí misma*
- 77 Asier Irazabal eta Hernan Quipildorekin. Tailerra
- 78 Mitusu, haur eta gazteentzako antzerki aretoa
- 79 Josune Urrutia *Onko*

#### **AZ**

- 82 Osasun Premium: Ariketatik harantz
- 83 Mediateka BBK-k kutxatila automatikoak instalatu ditu maileguak emateko eta jasotzeko
- 84 Azkuna Zentroa argitalpenak

#### **AGENDA**

- 90 Agenda
- 96 Informazio orokorra
- 98 Azkuna Zentroa, gune segurua



# Denboraldi berria garai berri baterako

Hiruhileko honetan 2021-2022 denboraldia jarriko dugu abian, zerbitzu guztiak jardunean izanik eta Zentroak darabiltzan lerro guztiak barne hartzen dituen askotariko programazioarekin. Zalantzarik gabe, gure *rentrée* garrantzitsuenetako bat izango da hau, eta, nire ustez, posizio onean gaude, denboraldi berri honi ekiteko "pole position"ean.

2019-2023ko gure Programa Proiektuak une zail batean egin du bide erdia. Zentrorra datorren jende-kopuruari dagokionez, suspertzen ari gara, ia 2019ko mailan baikau, eta gero eta jende gehiagok daki zer gertatzen den Alhóndigan, kulturaren esperientziaren bidez. Eraikin bakoitzeko hormen atzean zer dagoen erakutsi nahi dugu.

Gizartea eta kultura garaikidea lotzeko dugun ibilbide-orriari jarraiki prestatu dugun urteko programazioan, *Roma Akademia* erakusketaren irekiera nabarmentzen da, dimentsio artistikoa eta espaziala kontuan hartuta orain arte antolatutako erakusketarik zabalena baita.

Erakusketa honetan, Erromako Espainiako Errege Akademian 2018-2019 eta 2019-2020 promozioetan egonaldia izandako 45 artistak egindako lanak eta proiektuak biltzen dira, pintura, argazkigintza, diseinu industrial, zinema eta ikus-entzunezko, arkitektura, antzerki, literatura, moda eta zaharberritze-erlotoak. Erakusketa-proiektu honek espazio gehienak hartzen ditu: Erakusketa Aretoa, Lantegia, ideien laborategia, Mediateka eta Ataria.

Erakusketa honen ondoren, 2022an, Cabello / Carceller kolektiboaren

erakusketa egongo da, genero-erakuntzaren historiari buruzkoa, Paul B. Preciado filosofoak komisariatua. Gainera, Garbiñe Ortega adituak komisariatutako *Somewhere from here to heaven* ikus-entzunezko erakusketa ekoitzi du Zentroak. Belaunaldi desberdinetako zinemagileen konstelazio bat marrazten du, besteak beste, Apichatpong Weerasethakul, Ben Rivers, Ana Vaz eta Eduardo "Teddy" Williams-ena, 2020an zendu eta 1960/1970eko hamarkadetakako "funtsezko" zinemagilea izan zen Bruce Baillieren unibertsoan inspiratuta. Bestalde, Isidoro Valcárcel artista kontzeptualaren *Arkitektura goiztiarrak (Arquitecturas prematuras)* erakutsiko ditugu Lantegian.

Urrian, eszenAZ abiaraziko dugu, arte eszenikoen denboraldia. Azaroan Zentroan egingo diren arte eszenikoetako gizarteratzeari buruzko XII. Jardunaldietan sartuta dauden ikuskizunak nabarmentzen dira Dibertsitate artistiko eta sozialean oinarritzen dira topaketak, eta apustua egiten dute eszena garaikidearen inguruko begirada hibridoan alde.

Zinemara itzultzea izan da kultura suspertzeko azken hilabeteetako mugarri nabarmentetako bat, eta Azkuna Zentroak Bilboko erreferentzia izaten jarraitzen du horretan.

Zinemaldiaren programarekin hasi dugu denboraldia, eta aurten indartu egin da, Donostiako Zinemaldiarekin elkarlanean, film gehiagorekin eta haur eta familientzako goizeko saioekin. Horren ondoren, Zinematikaren monografikoa izango da, Frantziako zinema polarraren erakusle nagusia den Jean-Pierre Melvilleri buruzkoa; eta gure Zentroan egiten diren

Bilboko lehiaketak izango ditugu, hala nola Zinebi - Bilboko Nazioarteko Film Labur eta Dokumentalen jaialdia; Film Sozialak, Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia; Zinemakumeak gara!, emakumeek zuzendutako zinema-erakustaldia; eta, jakina, Golem Alhóndigako programazio aberatsa.

Nazioarteko komikigintzaren erreferentzia diren bi gunerekin –Quebeceko Maison de la littérature eta Angoulêmeko Egileen Etxearekin– sinatu dugun hitzarmenaren barruan sartu behar dira komikiaren eta ilustrazioaren alde egin dugun apustua eta nazioartean kultura garaikideko beste espazio eta proiektu batzuekin ehundutako lankidetzaren sare berriak. Esperientzia hori aitzindaria da Euskadin, eta nazioarteko kultura-plataforma baten abiapuntua ere bada, obra grafikoaren esparruan sormena bultzatzeko eta egileei beren sorkuntza-prozesuetan laguntzeko xedea duena.

Era berean, hurbileko sareak zabaltzen ditugu, beste erakunde eta eragile sozial batzuekin ezagutza partekatua sortuz. Gaur egun, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatearekin ari gara lanean, Zentroaren programazioarekin zuzenean ikasteko eta praktika artistikoa lantzeko aukera paregabea eskainiko duen lehen masterra abiarazteko.

Datorren ikasturtean abian jarriko den programa horren bidez, espazio bat sortu nahi dugu ekoizpen artistikoaren azken ildoen ekoizpena, pentsamendu kritikoa, sorkuntza, hausnarketa, eztabaida eta analisia jorratzeko, pertsonak gaitasun espezifikoean trebatuz, ikerketaren eta

profesionalizazio artistiko, kultural eta sozialaren inguruan.

Master horretako irakasle batzuk gaur egun Zentroarekin lan egiten duten artista AZKideak izango dira, eta ikerketak hemen egiten dituztenak, beren prozesuak gure publikoarekin partekatuz.

Azkuna Zentroan, kultura-zentro gisa dugun zeregin garrantzitsuenetako bat da iraupen luzeko programekin sorkuntza artistikoari laguntzea, hazi gisakoak izango baitira eta testuinguruan ernamuindu eta hura aberastu ahal izango baitute.

Sorkuntzari laguntzeko programen bidez, ia 40 proiektu eta ikerketa artistiko lantzen dira dantzaren, diseinuaren, ikus-entzunezko sorkuntzaren eta idazketaren inguruan, eta publikoekin partekatzen dira. Eta gehienbat Lantegian egiten dira, hirugarren eraikinean, zeina dagoeneko borborka baitago erakusketa, egonaldi artistiko eta laborategiekin.

Denboraldi berri honetan loturak sortzen jarraitu nahi dugu kulturaren inguruan, publiko ugarien interesari heltzeko erronkarekin, betiere zerbitzu publiko gisa aritu.



Foto: RAER

# Roma Akademia: 45 begirada Bramanteren Tenplutxotik

2021-2022 erakusketa-denboraldia *Roma Akademia* erakusketarekin hasiko da. Bertan, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) urteko bekaren bidez 45 artistak Erromako Espainiako Errege Akademiaren (RAER) izandako egonaldian egindako lanak biltzen dira. Roma Akademiak 2018-2019 eta 2019-2020 promozioetako egoiliarren lanak eta proiektuak aurkeztuko ditu lehen aldiz Euskal Herrian izango den erakusketa bakar eta handi honetan. **Jesús Donaire** arkitekto eta komisarioaren begiradapean antolatutako erakusketa-proiektuak beka artistikoen programa honen ikuspegi multidisziplinarioa erakusten du: pinturatik argazkigintzara, diseinu industrialra, zinema eta bideosorkuntza, arkitektura, antzerkia, literatura, moda eta zaharberritzea barne hartuta. Lan guztien izendatzaile komuna sortzaileek kultura-eragileekin

eta Erromako errealitate ugariekin duten interakzioa da. Erakusketa kolektibo bat baino gehiago, *Roma Akademia* diziplina eta ibilbide desberdinetako artisten elkarbizitzaren emaitza da, espazio honen giro paregabean lortua, etengabe garatzen ari den sorkuntza, ikerketa eta esperimontazioa bereizgarritzat dituen testuinguru batean, esperientzia honetan ezagutzek duten zeharkakotasuna nagusi dela. Bizikidetzat hori, azken bi promozioen kasuan, pandemiak eta San Pietro in Montorioko harresien atzean izandako konfinamenduak markatu dute, bertan baitago kokatuta Akademia. Bramanteren tenplutxoa, lorategiak, antzinako monasterio beneditarrekoteilatu lauak izan dira sorkuntza eta ikerketa partekatuen tokia, beren egonaldia zati handi batean. Ezohiko egoera hori erabakigarria izan da prozesu horietako asko garatzeko, batzuk azken bi urteetan bizi izandakoaren



adierazpena baitira. Erakusketa honekin, programa honen helburuetako bat betetzen da: Erroman izandako egoiliar bekadunen sorkuntzako emaitza beste errealitate kultural batzuetan sustatzea eta zabaltzea, hala nola Bilbon. Proiektuaren bidez, hilabete hauetan, sorkuntza garaikidearen erakusketa handi bat izango da Zentro osoa, eta, horrek aukera emango du lengoia artistiko berrietan barrena ibiltzeko espazio guztietan: hala [Erakusketa Aretotan](#), arte bisualen proiektuekin, nola arte eszenikoetara eta ikus-entzunezkoetara bideratutako [Lantegia](#). [Ideien Laborategian](#), tamainarik handieneko instalazioak bilduko dituen [Ataritik](#) eta musika eta letretarako lekua den [Mediateka BBK-tik](#) igarota.

### **Erroma, topagunea**

1873an sortutako eta Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren mendekoa den Erromako Espainiako Errege Akademiak duen helburu nagusia da laguntza ematea prestakuntza artistikoa eta humanistikoa emateko sorkuntza eta ikerketa artistikoan, Espainiako kulturak presentzia handiagoa

izan dezan Italian, bi herrialdeetako kulturak hobeto uler daitezzen eta lotura kultural handiagoa egon dadin Europa eta Iberoamerikaren artean. 147 urteko bizitzan zehar, Akademia bilakatu eta berrituz joan da, ekoizpen artistikorako eta ezagutza sortzeko zentro gisa. Topagune bat da monumentu-multzoaren tradizioan eta gizarte global eta teknologikoaren etengabeko berrikuntzan murgilduta dauden proiektuak garatzen dituzten sortzaileentzat. Ia 1.000 egoiliar izan dira elkarrekin harrerien artean, eta harremanak sortu dituzte, etengabeko atzeraelikaduran, hori baita zentroaren bereizgarrietako bat. Azken zazpi urteetan, gainera, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECID) laguntzak ematen dizkio ekoizpen artistikorako. Horrela, Estatuiko egonaldi artistikorik garrantzitsuenetako bat da, nazioartean erreferentzia diren beste sorkuntza-zentro batzuen antzekoa.



Foto: RAER

AKADEMIA

# ROMA

Processi 146

© Jone Loizaga



**Taxlo Ardanaz**  
Pamplona, 1978  
PINTURA



**José Ramón Amondarain**  
Donostia, 1964  
PINTURA

© Itziar Barrio



**Itziar Barrio**  
Bilbao, 1976  
BIDEOSORKUNTZA



**Iago Bragado**  
Gernika, 1994  
ARKITEKTURA



**Andrea Canepa**  
Lima, 1980  
ESKULTURA



**Nicolás Combarro**  
A Coruña, 1979  
FOTOGRAFIA




**Isolina Díaz**  
Gran Canaria, 1973  
KONTSERBAZIOA ETA  
ZAHARBERRITZEA



**Lara Dopazo**  
Marin, 1985  
LITERATURA

© Jesus Castro



**Silvia Fernández**  
Madrid, 1990  
DISEINUA



**María Angeles Ferrer**  
Palma de Mallorca, 1973  
MUSIKA ETA  
MUSIKOLOGIA



**Pablo Fidalgo**  
Vigo, 1984  
ARTE ESZENIKOAK



**Pedro G. Romero**  
Aracena, 1964  
ARTEA ETA  
TEKNOLOGIA BERRIAK



**Begoña Huertas**  
Gijón, 1965  
LITERATURA



**Julia Huete**  
Ourense, 1990  
KOMIKIA



**María Moraleda**  
Toledo, 1988  
KONTSERBAZIOA ETA  
ZAHARBERRITZEA



**Jorge Portillo**  
San Salvador, El Salvador, 1973  
LITERATURA



**Marta Ramos-Yzquierdo**  
Saint Mandé, Francia, 1975  
MUSEOLOGIA, KOMISARIOZTA  
ETA BITARTEKARITZA  
ARTISTIKOA



**Estibaliz Sázcaba**  
Bilbao, 1963  
BIDEOSORKUNTZA



**Fernando Sánchez-Cabezudo**  
Madrid, 1909  
ARTE ESZENIKOAK



**Borja Santomé**  
Vigo, 1992  
ZINEMA



**Anna Talens**  
Carcaixent, Valencia, 1978  
ESKULTURA



**María del Mar Villafraña**  
Granada, 1961  
ARTEAREN HISTORIA



**Tono Vizcaíno**  
Valencia, 1985  
ARTXIBOA ETA  
DOKUMENTAZIOA

© Carles Rodrigo




© Jorge Cubero

**José Ramón Ais**  
Bilbao, 1971  
KONTSERBAZIOA



© Omelia Mercier

**Carla Berrocal**  
Madrid, 1983  
KOMIKIA



**Antonio Buchanan**  
Madrid, 1984  
MODA DISEINUA



**Ana Bustelo**  
Palencia, 1982  
KOMIKIA



**Joana Cera**  
Barcelona, 1965  
ESKULTURA




**Jorge Cubero**  
Madrid, 1996  
DISEINU GRAFIKOA



**Federico Guzmán**  
Sevilla, 1964  
PINTURA



**Susanna Inglada**  
Banyeres del  
Penedés, 1983  
GRABADO



**Montserrat  
Lasunción**  
Canet de Mar,  
Barcelona, 1977  
KONTSERBAZIOA



**Jana Leo**  
Madrid, 1965  
FOTOGRAFIA



**Jorge Luis Marzo**  
Barcelona, 1964  
IKASKETA AKADEMIKOAK



© Clémentine Ortega

**Irene Clémentine  
Ortega**  
Bilbao, 1986  
MODA DISEINUA



© Juan Lara Hierro

**Javier Pividal**  
Cartagena, 1971  
GRABATUA



**Enrique Radigales**  
Zaragoza, 1970  
ARTEA ETA  
TEKNOLOGIA BERRIAK



© Guillermo Giampietro

**Panxo Ramas**  
Milan, 1979  
MUSEOLOGIA



**Adolfo Serra**  
Teruel, 1980  
KOMIKIA



**Begonia Soto**  
Sevilla, 1964  
ZINEMA



**Claudio Sotolongo**  
La Habana, Cuba, 1982  
DISEINU GRAFIKOA



**Eduardo Soutullo**  
Bilbao, 1968  
MUSIKA



**Javier Verdugo**  
Sevilla, 1949  
KONTSERBAZIOA



© Lisbeth Salas

**Manuel Vilas**  
Barbastro, 1962  
LITERATURA



**Ana Zamora**  
Madrid, 1975  
ARTE ESZENIKOAK

# AKADEMIA

Processi 147

# Komikiaren Nazioarteko Egonaldi berria

Ibaiak dira hirien eta haien bilakaeraren ardatz egituratzaile, lekuko eta eragile, eta haien idiosinkrasia osatzen duten testuinguru eta paisaia arkitektonikoak eta bizi-paisaiak zedarrizten dituzte. Ibaiertzak bereizten dituen ura eta ertzak lotzen dituzten zubi ugariak hirien ezaugarri garrantzitsuak dira, hiriek kohesio sozial eta kulturala bilatzen baitute ibaietan.

Horrek guztiak ñabarduretan aberatsa den ekosistema bat eratzen du, eta proposamen artistiko berrietatik begiratu behar zaio. Horregatik, ibaia da Quebeceko Maison de la littérature, Angoulêmeko Cité internationale de la bande dessinée et de l'image eta Bilboko Gizarte eta Kultura Garaikidearen Zentroa den Azkuna Zentroak aktibatu duten [Komikiaren Nazioarteko Egonaldi berrirako](#) aukeratutako haria.

Leku horietako bakoitzean egile bat aukeratuko da, egonaldia izan dezan Anguleman, Bilbon eta Quebecen, hurrenez hurren. Egoiliarrek urak lurraldean duen esanahiaren inguruko lana egingo dute modu garaikidean, ondarea bezalako gaiei lotutako giza jarduerak ulertuz eta tipologia historikoak lan-tresna gisa sartuz. Beste zentro batzuk ezagutzeak, beren espazioa zalantzan jartzeak eta beste batzuen aurkitzeak aukera emango die beren mundu pertsonala eta sortzailea birdefinitzeko.

[AZKUNA ZENTROAN,  
MEDIATEKA BBKREN  
KOMIKTEKA GUNEA  
IZANGO DA EGOILIARREN  
LAN-ESPARRUA.](#)

Azkuna Zentroan, [Mediateka BBK](#)ren Komikteka gunea izango da egoiliarren lan-esparrua. Eleberrirako grafikoaren inguruko irakurketan eta ekoizpen artistikoan oinarritutako esperimintazio-lekua da, 5.000 liburu inguruko funtsa duena.

Komikiaren inguruko egonaldi gurutzatuen programa aitzindaria da Euskadin, eta nazioarteko kultura-plataforma baten abiapuntua ere bada, zeinaren bidez sormena bultzatu nahi den lan grafikoaren esparruan eta egileei laguntza eman beren sorkuntza-prozesuetan. Azkuna Zentroak Quebeceko Maison de la littérature-rekin eta Angoulêmeko Cité internationale de la bande dessinée et de l'image-rekin sinatutako hitzarmenaren helburua da komikiaren esparruan sorkuntza sustatzea eta hainbat herrialdetako pertsonen arteko elkarketa bultzatzea, diziplina honetako funtsezko ingurune profesionaletan, beste diziplina garaikide artistiko batzuetako artistekin konektatuz

## Komikiari buruzko ezinbesteko elkarrizketak

Espazio berean aktibatuko da hiru hileko honetan komikiaren munduko figura ezinbesteko batzuen inguruko lehen bitartekaritza-zikloa, honako gai hauen inguruan antolatua: komiki amerikarra, europarra, espainiarra eta manga.

Komikigileei eta gai honetan interesa duten pertsoneri zuzendutako topaketa hauetan, [Mediateka BBK](#)ren bildumako eleberri grafikoen egileen lana aztertuko da. Joan nahi dutenek AZ infon edo webgunean eman dezakete izena. Programa osoa xx orrian kontsulta daiteke.

## HIRU ESPAZIO, HIRU BEGIRADA



Cité internationale de la bande dessinée et de l'image.  
Angoulême



Mediateka BBK. Azkuna Zentroa



Maison de la littérature. Quebec

////////////////////////////////////  
**Kontsultatu Nazioarteko  
Komiki Egonaldiaren deialdia  
71. orrialdean.**  
////////////////////////////////////

# Gizarte inklusioari eta arte eszenikoen hezkuntzari buruzko XIII. jardunaldiak

Azaroaren 3, 4 eta 5ean, Gizarteratzeari eta [Arte Eszenikoen Hezkuntzari buruzko Jardunaldiak](#) egingo dira Azkuna Zentroan. Topaketa horien ardatza prozesu artistikoen inpaktuak dira, eta begirada artistiko hibridoen alde egiten dute, ertzetara edo mestizoa den horretara hurbiltzen direnen alde; orobat, elkarguneak azpimarratzen dituzte, horietan aberastasuna dibertsitatearekin eta hizkuntza artistikoen eta pertsonen eta kolektiboaren arteko kutsadurarekin indartzen baita. Dibertsitate artistiko eta soziala Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoren bereizgarria da, eta, horregatik, zentro hau aukeratu da horiek hartzeko.

Edizio honetako goiburua bi kontzepturen inguruan egituratu da: begirada inklusiboa duten prozesu artistikoen inpaktuak, eta proiektu horiek zabaltzen dituzten erresonantziak, hala lantzen dituzten artistentzat, nola parte hartzen duten pertsona eta kolektiboentzat edo sustatzen dituzten instituzioentzat.

Era berean, oraingoan, indartu egingo da herritarrek arteetan parte hartzea giza eskubide bat delako ideia, baita gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonentzat eta kolektiboentzat ere, eta hori sustatzeko eta errazteko erantzukizuna dutenek bultzatu eta erraztu behar dutelako nozioa.

«Errealitate horietan, sormen-prozesuak erresonantzia desberdinak zabaltzen ditu, bai proiektuei heltzen dieten artistentzat,

bai parte hartzen duten pertsona eta kolektiboentzat, bai horiek sustatzen edo hartzten dituzten erakundeentzat. Sormeneko eta inpaktu sozialeko sinergia positiboak sortzeaz gain, prozesu horiek zailtasunak eta erronkak dakartzate haiei heltzeko, garatzeko eta laguntzeko, emaitza egonkorak lortzeko orduan», argudiatu dute erakunde antolatzaileek.

Premisa horrek markatzen ditu jardunaldiak antolatzen dituzten erakundeak: Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionala (INAEM), Murtziako Udala, Andaluziako Kultura Institutuzien Agentzia eta Titulartasun Publikoko Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdien Espainiako Sarea.

Hiru egunetan, hitzaldiak zuzeneko ikuskizunekin, artisten foroekin, ekintza performatiboekin, proiektuen aurkezpenarekin eta tailerrekin tartekatuko dira. Gainera, Jardunaldien luzapen gisa, beste jarduera batzuk egingo dira Zentroan, hala nola bigarren eskuko azoka, material bibliografikoarekin eta ikus-entzunezkoekin, azaroaren 6an eta 7an, Atarian (larunbata eta igandea). Bildutako dirua Irakurketa errazeko euskarazko titulu berriak argitaratzeko erabiliko da.

Azaroaren 5eko goizeko programazioaren zati bat eskainiko da Estatuako edo nazioarteko profesionalek, kolektiboek, artistek, kudeatzaileek eta erakunde publiko edo pribatuek komunikazioak aurkezteko. Hautatutako zortzi proiektuek esperientzia berritzaileak, sorkuntza artistikoko


Del 3 al 5 de noviembre de 2021.  
2021eko azaroaren 3tik 5era.

Azkuna Zentroa  
Alhóndiga Bilbao

DESPLAZAMIENTOS Y TRÁNSITOS  
LEKUALDATZEAK ETA IGAROTZEAK

## XIII JORNADAS SOBRE INCLUSIÓN SOCIAL Y EDUCACIÓN EN LAS ARTES ESCÉNICAS

## GIZARTE INKLUSIOARI ETA ARTE ESZENIKOEN HEZKUNTZARI BURUZKO XIII. JARDUNALDIAK.



prozesuak edo arte eszenikoen eta musika inklusiboaren barruko kudeaketa eta ikerketak aurkeztuko dituzte, gaur egun Estatuan edo nazioartean garatzen edo kudeatzen direnak.

### **Ikusgarritasuna, hezkuntza, sentsibilizazioa**

Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalak (INAEM) antolatzen dituen eta Azkuna Zentroaren laguntza duten Gizarteratzeari eta **Arte Eszenikoen Hezkuntzari buruzko Jardunaldiak** berariaz balioesten dute gizarteratzera bideratutako arte eszenikoen eta musikaren sorkuntza artistikoa, profesionalizazioa, erakusketa eta zabalkundea sustatzu. Gainera, sektore horretan lan egiten duten profesionalak eta artistak ikusarazten dira, eta bikaintasun artistikoko proiektuak eta arte eszenikoetan eta musikan gizarteratzearen arloan arrakastaz garatzen diren tresnak eta metodologiak zabaltzen dira.

Era berean, aukera ematen dute arte eszenikoen eta musika inklusiboaren hezkuntza sustatzeko, praktika eta sorkuntza artistikoaren ikuspegitik, eta arte eszenikoen eta musika inklusiboaren hedapena sustatzen duten instituzioen lankidetzak eta konpromiso-bideak abiaraztea bultzatzeko, horiek ekoizpen- eta erakusketa-zirkuituetan eta hezkuntza-arloan sartzeko eta sendotzeko sustatuz.

Helburuei dagokienez, besteak beste, topaketa hauek sentsibilizatu nahi dute eta lortu nahi dute gizarteratze-proiektuak beste arlo bat izana daitezen arte eszenikoetan eta musikaletan aritzen diren erakunde eta organismoen kudeaketa artistikoa.

### PROGRAMA

#### **AZAROA 3, ASTEAZKENA**

- 18:00** - Instituzio-inaugurazioa. Auditorioa
- 18:00** - Los Bárbaros. *De la A a la Z*. Ekintza performatiboa
- 20:00** - Les Impuxibles. *Suite TOC número 6*. Auditorioa

#### **AZAROA 4, OSTEAGUNA**

- 9:30** - Irekiera. Auditorioa
- 10:00** - Arte pixka bat. Auditorioa
- 10:05** - *Arte urgente en tiempos de crisis*. Egly Larreynaga. Teatro del Azoro eta La Cachada-ren sortzailea
- 11:30** - Arte pixka bi. Auditorioa
- 12:00h** - Konbertsatorioa: trantsitoak. María Oliver. OVI Barcelonako kidea, Diversorium Maylis Arrabit proiektuaren komitentea. *Habrà que ponerse cachas* en zuzendari artistikoa. Rubén Alonso. Antropoloops-en koordinatzailea Auditorioa
- 13:30** - Arte pixka hiru. Auditorioa
- 16:30** - Tailerrak: Egly Larreynaga. *Proximidad al circo*. MUR producciones-eko Jordi Mas eta David Candelich (Camaleónica Producciones). *Maneras de no estar solos* Javier Hermando eta Miguel Rojo, Los Bárbaros-ekoa / *Buscando la forma, encontrando narrativas en los cuerpos y en el espacio* Maylis Arrabit, Ebi Soria Corón eta Xabier-en eskutik
- Madina Manterola, HQPC proiektu kolektibokoa. *Dançando com a diferença: ¿qué hay más allá del horizonte?* Henrique Amoedoren eskutik. Rubén Alonso, Antropoloops-ekoa
- 20:00** - Ikuskizuna: *Habrà que ponerse cachas*. Lantegia 1 / De tú a tú, Producciones Mur Lantegia 1

#### **AZAROA 5, OSTIRALA**

- 9:30** - Arte pixka lau. Auditorioa
- 9:35** - Komunikazioak. Auditorioa
- 12:30** - *De la ultraperiferia hacia el centro - Dançando com a diferença em movimento*. Henrique Amoedo Dançando com a diferença-ren zuzendari artistikoa Auditorioa
- 14:00** - Arte pixka bost. Auditorioa

Jardunaldiari buruzko informazio gehiago: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

# Ailantok bat egiten du dendAZ saltokiko diseinatzaileen komunitatearekin

Ailanto, parerik gabeko estanpatuak, artisautzako diseinuak eta material nobleak erabiltzeagatik ezaguna den moda-marka, dendAZ. This is Basque Design saltokian egongo da. Zentroarekin hitzartuta, estanpatuko ehun-diseinu eskusibo bat sortu da, Azkuna Zentroan eta haren arkitekturan inspiratuta, dendaren merchandising-linea berriaren leitmotiv gisa, eta azaroen aurkeztuko da.

Ailanto marka -"zeruko zuhaitza" izenez ezagutzen den apaindurako zuhaitza- lñaki eta Aitor Muñoz anaia bikiek sortu zuten 1995ean, Bartzelonako Arte Ederretako Unibertsitatean lizentziatu eta lñaki moda-diseinuan eta Aitor paisajismoan eta botanikan espezializatu ondoren.

Artearekiko eta edertasunarekiko zuten grinak ondo islatzen ditu XIX. eta XX. mendeetako mugimendu artistikoetako margolari, eskultore eta paisajisten mundu preziosistak. Azaldu dutenez, sormen-prozesua estanpatuen diseinuarekin hasten da, eta hainbat teknika piktorikoren bidez

garatzen dute, hala nola collagea, tenpera, akuarela eta olio erabiliz. «Horiek oinarri hartuta, bildumako piezak osatzen dira, eta, modelatzeko teknikei esker, estanpatuek beren bolumenak marrazten dituzte», zehaztu dute beren sormen-prozesuari buruz.

Emitza diseinu eskusiboak eta benetakotasun sortzailea dira, eta «ikertzeko, harritzeko, berritzeko eta, aldi berean, berreskuratu berrasmatu ahal izateko dugun gaitasunak definitzen du hori». Balio berezia ematen diete xehetasunei eta diseinu osoan ondo egindako lanari: materialen hautapenarekin hasi eta prozesuekin segi, hala teknikoekin nola eskuzkoekin, eta garrantzi handia ematen diete akaberei.

Bi bilbotarren markak tokiko ekoi-zenaren aldeko apustua egiten du, eta lanean aritzen da «ingurune eta naturarekiko errespetua hobetzen, eta jasangarritasuna bermatzen gure hornitzaile eta kolaboratzaileekin materialen eta ekoi-zen-prozesuen erabilera egokia eginez».





This Is Basque Design Merkatua Atrion

### **This Is Basque Desing Merkatua abenduan**

DendAZ. This is Basque Design, Azkuna Zentroaren saltokia, diseinuaren erreferentziatzko gune bihurtu da, 2019ko uztailean ireki zenetik. Show room dinamikoa eta biziaren kontzeptu berri bat irudikatzen du, non bertako eta nazioarteko artisten lana gauzatzen den, diseinatzaileak sortzeko prozesua eta lana balioetsiz eta erosketara sortzailearen kontzeptua sustatuz.

dendAZ. This is Basque Design Atarira zabalduko da hiruhileko honetan, abenduaren 10ean, 11n eta 12an, espazio zabal eta erosoagoa sortuz Azkuna Zentroan, komunitate horretako kide diren diseinatzaileak eta produktu bakoitzaren atzean dagoen proiektu pertsonal eta

profesionala ezagutzeko, bai eta produktu bakoitzaren sormen-prozesuak eta tokiko, artisautzako eta jasangarritasunarekin konprometitutako ekoizpena ere.

### **This Is Basque Design Merkatua**

Ostirala, abenduak 10,  
17:00etik 20:30era.

Larunbata, abenduak 11,  
11:30-20:30

Igandea, abenduak 12,  
11:30-14:00

Bisitatu dendAZen online saltokia: [dendaz.azkunazentroa.eus](http://dendaz.azkunazentroa.eus)

# Sorkuntza garaikidearen loturak, elkarrizketak eta deribak

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurrean abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.



**Irati Inoriza**  
Artista



**Maider Aldasoro**  
Artista



**Asier Irazabal y Hernan Quipildor**  
Artistak



**Laida Lertxundi**  
Artista Az-Kidea



**Sra. Polariska (María Ibarretxe eta Alaitz Arenzana)**  
Artista Az-Kideak



**Josune Urrutia**  
Ilustratzailea



**Núria Guiu**  
Koreografoa eta dantzaria



**Aimar Arriola**  
Komisarioa eta ikertzaile  
Az-Kidea



© Robyn Wassink Murray

**Sands Murray-Wassink**  
Artista



**Raquel Meyers**  
Artista  
**Borja Crespo**  
Zuzendaria, zinema-ekoizlea,  
idazlea eta ilustradorea



**John Richards**  
Musikaria



**Jaime de los Ríos**  
Artista



**Karlos Martínez B.**  
Artista



**Kara Güt**  
Artista



**Isabel de Naverán**  
Ikertzailea, editorea  
eta komisarioa.  
Ikertzaile Az-Kidea



Caterina Avataneo  
Artista



Ane Pikaza  
Artista



Eva Balmisa  
Artista



Itxaso Díaz  
Artista



Daniel Abreu  
Artista. Dantzaldia. La  
Fundición




Iker Vázquez  
Artista



Oihane Sánchez Duro  
Artista



Saioa Olmo  
Artista



M. Behito Píriz  
Artista



Francisco López  
Artista



Blanca Ortiga  
Artista



Ander Pérez Puelles  
Artista



Victoria Ascaso  
Artista



Jonathan García Lana  
Artista



Enrike Hurtado  
Artista eta irakaslea



Rafael Martínez del Pozo  
Músico



Usue Arrieta  
Artista



Macarena Recuerda  
Shepherd  
Artista



Oier Iruretagoiena  
Artista



Miguel A. García  
Artista



Ainara Elgoibar  
Artista



Urbanbat  
Artistak



Ion Munduate  
Koreografoa eta ikertzailea

the 1990s, the number of people in the world who are under 15 years of age is expected to increase from 1.1 billion to 1.4 billion (United Nations 1998).

There are a number of reasons why the number of children in the world is increasing. One of the main reasons is that the number of children who are surviving to adulthood is increasing. This is due to a number of factors, including improved medical care, better nutrition, and a decrease in child mortality rates.

Another reason why the number of children in the world is increasing is that the number of children who are being born is increasing. This is due to a number of factors, including a decrease in the age at which women are having children, and an increase in the number of children who are being born to women who are already mothers.

There are a number of challenges that are associated with the increasing number of children in the world. One of the main challenges is that there is a need for more resources to care for these children. This includes more schools, more teachers, and more social services.

Another challenge is that there is a need for more resources to care for the children who are most in need. This includes children who are living in poverty, children who are disabled, and children who are at risk of abuse and neglect.

There are a number of ways that we can address these challenges. One way is to invest in education. This includes building more schools, training more teachers, and providing more resources to schools.

Another way is to invest in social services. This includes providing more resources to social workers, and providing more resources to child protective services.

There are a number of other ways that we can address these challenges. This includes providing more resources to parents, and providing more resources to children who are most in need.

It is important that we take action now to address these challenges. If we do not, the number of children in the world who are living in poverty, who are disabled, and who are at risk of abuse and neglect will continue to increase.

There are a number of things that we can do to help these children. We can provide them with the resources that they need to thrive. We can provide them with the education that they need to succeed. We can provide them with the love and support that they need to grow up healthy and happy.

It is our responsibility to care for these children. We must take action now to address the challenges that they face. We must provide them with the resources that they need to thrive. We must provide them with the education that they need to succeed. We must provide them with the love and support that they need to grow up healthy and happy.

There are a number of ways that we can help these children. We can provide them with the resources that they need to thrive. We can provide them with the education that they need to succeed. We can provide them with the love and support that they need to grow up healthy and happy.

It is our responsibility to care for these children. We must take action now to address the challenges that they face. We must provide them with the resources that they need to thrive. We must provide them with the education that they need to succeed. We must provide them with the love and support that they need to grow up healthy and happy.

PROGRAMAZIOA

# ROMA AKADEMIA

## Procesi 146

José Ramón Amondarain  
Taxio Ardanaz  
Itziar Barrio  
Igor Bragado  
Andrea Canepa  
Nicolás Combarro  
Isolina Díaz  
Lara Dopazo  
Silvia Fernández  
María Ángeles Ferrer  
Pablo Fidalgo  
Pedro G. Romero  
Begoña Huertas  
Julia Huete  
María Moraleda

## Procesi 147

Jorge Portillo  
Marta Ramos-Yzquierdo  
Estíbaliz Sádaba  
Fernando Sánchez-Cabezudo  
Borja Santomé  
Anna Talens  
María del Mar Villafranca  
Tono Vizcaíno  
José Ramón Ais  
Carla Berrocal  
Antonio Buchannan  
Ana Bustelo  
Joana Cera  
Jorge Cubero  
Federico Guzmán  
Susanna Inglada  
Montse Lasunción  
Jana Leo  
Jorge Luis Marzo  
Irene-Clémentine Ortega  
Javier Pividal  
Enrique Radigales  
Pantxo Ramas  
Adolfo Serra  
Begoña Soto  
Claudio Sotolongo  
Eduardo Soutullo  
Javier Verdugo  
Manuel Vilas  
Ana Zamora

ARTES BISUALAK / ARTE BIZIAK / ZINEMA  
ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / LITERATURA  
2021 URR. 29 > 2022 OTS. 6

## *Roma Akademia*

Komisarioa: Jesús Donaire

Urriaren 29an inauguratuko da *Roma Akademia* erakusketa, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) urteko bekaren bidez 45 artistak Erromako Espainiako Errege Akademitan (RAER) izandako egonaldian egindako lan eta proiektuekin.

**Jesús Donairek** komisariatutako erakusketa-proiektu honek programaren ikuspegi multidisziplinarioa erakusten du: pinturatik hasi eta argazkigintzara, diseinu industrialia, ikerketa, zinemaa, arkitektura, antzerkia, literatura, moda eta zaharberritzea barne hartuta. Lan guztien izendatzaile komuna artistek kultura-eragileekin eta Erromako errealitate ugariarekin duten interakzioa da.

*Roma Akademia* Zentroko gune guztietan egongo da: [Erakusketa Aretoa](#)n, [Lantegia](#). [Ideen Laborategian](#), [Atarian](#) eta [Mediateka BBK](#)-n.

Proiektua erakusketaren katalogoarekin osatuko da, parte hartzen duten 45 artisten sormen-prozesuen azalpenarekin.

////////////////////////////////////  
**2021ko urriak 29 > 2022ko otsailak 6**

**Erakusketa Aretoa**  
**Mediateka BBK**  
**Lantegia. Ideien laborategia**  
**Ataria**

////////////////////////////////////  
**Ordutegia**

Asteartetik igandera:  
11:00 - 20:00

////////////////////////////////////  
**Bisita gidatuak (30'):**

Ostegun guztietan, 18:00etan eta 19:00etan (Euskara eta gaztelania)

Sarrera dohainik, aurrez izena emanez gero:

AZ Info / 944 014 014  
info@azkunazentroa.eus

**Gehienez: 20 pertsona\***

\*Bisita bakoitzeko pertsonakopurua aldatu egin daiteke pandemia kontrolatzeko une bakoitzean hartzen diren neurrien arabera. Informazio gehiago: azkunazentroa.eus

**Artistak:**

**Taxio Ardanaz** (Iruña, 1978)  
**José Ramón Amondarain** (Donostia, 1964)  
**José Ramón Ais** (Bilbo, 1971)  
**Itziar Barrio** (Bilbo 1976)  
**Carla Berrocal** (Madril, 1983)  
**Igor Bragado** (Gernika, 1994)  
**Antonio Buchannan** (Madril, 1984)  
**Ana Bustelo** (Palencia, 1982)  
**Andrea Canepa** (Lima, 1980)  
**Joana Cera** (Bartzelona, 1965)  
**Nicolás Combarro** (A Coruña, 1979)  
**Jorge Cubero** (Madril, 1996)  
**Isolina Díaz** (Gran Canaria, 1973)  
**Lara Dopazo** (Marín, 1985)  
**Silvia Fernández** (Madril, 1990)  
**María Ángeles Ferrer** (Palma de Mallorca, 1973)  
**Pablo Fidalgo** (Vigo, 1984)  
**Pedro G. Romero** (Aracena, 1964)

**Federico Guzmán** (Sevilla, 1964)  
**Begoña Huertas** (Gijón, 1965)  
**Julia Huete** (Ourense, 1990)  
**Susanna Inglada** (Banyeres del Penedés, 1983)  
**Montserrat Lasunción** (Canet de Mar, Bartzelona, 1977)  
**Jana Leo** (Madril, 1965)  
**Jorge Luis Marzo** (Bartzelona, 1964)  
**María Moraleda** (Toledo, 1988)  
**Irene Clémentine Ortega** (Bilbo, 1986)  
**Javier Pividal** (Cartagena, 1971)  
**Jorge Portillo** (San Salvador, El Salvador, 1973)  
**Enrique Radigales** (Zaragoza, 1970)  
**Pantxo Ramas** (Milán, 1979)  
**Marta Ramos-Yzquierdo** (Saint Mandé, Frantzia, 1975)  
**Estibaliz Sádaba** (Bilbo, 1963)

**Fernando Sánchez-Cabezudo** (Madril, 1979)  
**Borja Santomé** (Vigo, 1992)  
**Adolfo Serra** (Teruel, 1980)  
**Begoña Soto** (Sevilla, 1964)  
**Claudio Sotolongo** (La Habana, Cuba, 1982)  
**Eduardo Soutullo** (Bilbo, 1968)  
**Anna Talens** (Carcaixent, Valencia, 1978)  
**Javier Verdugo** (Sevilla, 1949)  
**Manuel Vilas** (Barbastro, 1962)  
**María del Mar Villafranca** (Granada, 1961)  
**Tono Vizcaino** (Valencia, 1985)  
**Ana Zamora** (Madril, 1975)



Informazio gehiago *Roma Akademia* erakusketari buruz: 8 orr.

ARTE BISUALAK / INSTALAZIOA  
RA. 16 > URR. 10

# Maider Aldasoro

*Aurrean goxo*

«"TRAMANKULU" BERRIAK  
SORTZEN ARI NAIZ, DESIO  
KOMUNAK ETA INTIMOAK, ARLO  
PRIBATURA ETA EZKUTURA  
BIDERATUAK, HORIEN BIDEZ  
KANPORATZEKO ASMOZ».  
MAIDER ALDASORO





Maidar Aldasoro diziplina anitzeko artistak *Aurrean goxo* aurkeztuko du, erabiltzaileen gorputzen egunerokotasuna aldatzen duten tramankulu-jantziak diseinatu eta sortzearen inguruan egindako proiektuaren emaitza. *Aurrean goxo*, artistak emandako definizioaren arabera, «desioen elkarketa bat da, bizitza aspergari baten barruko fantasia bat. Unibertso baten eraikuntza, nire baitan egon daitekeen alderdirik benetakoena asetzeko».

Maidar Aldasororen hitzetan, «batzuetan, tramankulu horiek gorputzak elkartuta egotera behartzen dituzte, oso gogor musukatzen, baita jolastera ere; eta, beste batzuetan, pixka bat arriskuan jartzen dituzte. Guztiek asetzen dute eta guztiek nekatzen. Tramankulu horiek eraiki ondoren, martxan jarri edo probatzen ditut eta bideoz grabatu edo argazkiak ateratzen dizkiet. Beste izaki preziatu batzuez lagunduta ere egoten dira».

////////////////////////////////////

**Irailak 16 > Urriak 10**

**Asteartetik ostiralera:**

**16:00 - 20:00**

**Larunbatak: 11:00 - 20:00**

**igandeak: 11:00 - 15:00**

**Lantegia 2. Lab 2**

**Sarrera dohainik**

////////////////////////////////////

 [@maider.aldasoro](https://www.instagram.com/maider.aldasoro)



**MAIDER ALDASORO** (1992, Donostia). Arte Ederretan graduatu zen EHU eta Arte eta Sormen Ikerketako masterra egin zuen Madrilgo Konplutentse Unibertsitatean. Bideoa, jantzien diseinua, tramankuluen eraikuntza, performancea eta animazioa nahasten ditu bere lanean. 2018tik, artean, bitartekaritzan eta lankidetzaren proiektuetan aritzen den talde bateko kidea da, Ane Rodríguez Zaitegirekin batera.


ARTE BISUALAK / INSTALAZIOA  
IRA. 17 > URR. 10

# Karlos Martínez

## *Plan K. Güt*

Kara Güt artistarekin elkarlanean

KARLOS MARTÍNEZEK ONLINE  
ESPAZIO BAT PROPOSATZEN DU,  
SORKUNTZA GARAIKIDEAREN  
BAZTERRETAN DAUDEN ARTISTEK  
ZUZENDUTAKO IKUS-ENTZUNEZKO  
LANAK ERAKUSTEKO ETA  
AZTERTZEKO.



**K. Güt Plana** Karlos Martínez artistak bere *Plana* proiektuaren esparruan egindako lehen proposamena da. Proiektu hori espazio etena da, izaki fisikoaren eta izaki digitalaren aldiberekotasuna esploratzeko proiektu artistikoak sortu eta aurkeztera bideratua.

**Kara Güt** artista iparramerikarrarekin batera, Karlos Martínezek *Intimacy Mod Live* egin zuen irailaren 16an, zuzeneko performance bat. Lan horretan, txat baten bidez ikusleen eskaerak jaso ondoren, proxy batek interpretea ordezkatzeko zuten.

Egintzaren emaitza Auditorioko ataurrean ikus daiteke, instalazio formatuan. Gütek honako honela azaldu du lana: «Emanaldian bi abatar daude nahasita, haien ahoen magnetismoaren bidez lotuak, eta trapuzko papinariaren fisikaz fidatuta, koreografia bat egitera bultzatzen dira. Koreografia horretan, gorputz birtualak bihurrikatu egiten dira, ezinezko eta bortxazko besarkadetan».

////////////////////////////////////

**Irailak 17 > Urriak 10**  
**Egunero**

9:00 - 21:00

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 [0plan0.com](http://0plan0.com)

 [@0plan0](https://www.instagram.com/0plan0)

 [karagut.info](http://karagut.info)



**KARLOS MARTÍNEZ.** (1982, Bilbo) eskultura lan egiten du, batez ere, baina hainbat erakunderentzat askotariko proiektuak egin ditu. Bere lanaren ardatza zulo fisiko eta mentalak irekitzea da, desirarako sarbide eta konexioa izateko.



**KARA GÜT** (1989, Cleveland, Ohio, AEB) diziplina anitzeko artista da eta irudian oinarritutako bitarteko digitalak erabiltzen ditu. Bere lanaren bidez, Internetek markatzen duen bizimoduaren, errealitatearekiko urruntzearen eta birtualtasunaren botere-dinamikaren eraginez giza intimitateak duen forma berria ikertzen du.

ARTE GARAIKIDEA / PERFORMANCEA

18 AZA. (Ostg.)

# Sands Murray-Wassink

*Working Title: Shahzia Sikander Catalysis*

Artistaren performancea Aimar Arriolak lagunduta,  
ikertzaile AZKide

EKITALDIA SANDS MURRAY-  
WASSINK-EN LEHEN AURKEZPEN  
PUBLIKOA IZANGO DA EUSKAL  
HERRIKO ETA ESPAINIAKO  
ERAKUNDE BATEAN.

Sands Murray-Wassink, "Identity Shots or Before Robin, After Hannah Wilke" (1995). Instalazioaren ikuspegia, xehetasuna, Rijksakademie Open, 2021.



2020ko ekainetik 2021eko otsailera bitartean, [Sands Murray-Wassink](#) artista holandar estatubatuarra eta [Aimar Arriolak](#) gutun-truke bat izan zuten, *If I Can 't Dance, I Don' t Want To Be Part Of Your Revolution* erakundeak gonbidatuta –Amsterdamen egoitza duen erakunde, performancea aztertzen duena–. Trukea [Gift Science Archive \(GSA\)](#), Murray-Wassink-en performance sekulakoaren alboko osagai bat izan zen. *If I Can' t Dance* enkargatutako performanceak 18 hilabeteko iraupena izan zuen; bertan, artistak eta laguntzaileek bere estudioko materialen inbentario osoa indusi, ordenatu eta artxibatu zuten performance iraunkor bat bezala. Testuinguru horretan, Murray-Wassink eta Arriolaren arteko gutun-trukeak artean eta artistaren bizitzan ohikoak diren gaiak aztertu zituen, autozaintza, osasun mentala, generoa eta sexualitatea barne (trukearen emaitza hemen kontsulta daiteke: <https://ificantdance.studio/>).

Gutun-trukearen elementuetatik abiatuz, "queer forma" denarekin edo izan daitekeenarekin zerikusia dutenak barne hartuta, eta, orobat, aldaketa kulturaleri, migrazioari, espiritualtasunari, estetikari, etnizitateari, istorioei, generoari eta sexualitateari, egoera mentalei eta horiekin guztiekin borrokatzeko moduei buruzko ideiak jasoz, Sands Murray-Wassink-ek performance berri bat aurkeztuko du gaualdi honetan. Performanceak artistaren lanean errepikatzen diren estrategiak izango ditu oinarrian, hala nola aipua, zuzeneko marrazkia eta zerbaiten sostengua -dela bizitza, pentsamendua edo ekintza- denbora luzez.

Argazkilaria: Robin Wassink-Murray.



### SANDS MURRAY-WASSINK

(1974, Topeka, Kansas). Amsterdameko eszena artistikoko queer arloan pertsona ospetsua da Murray-Wassink margolari, gorpuzaren artista, idazle eta perfume-bildumagilea, eta zordun da arte interseksional feminista eta queer-aren hainbat forma eta permutazioekin, eta

bere praktikaren funtsezko koordinatuak diren Carolee Schneemann, Hannah Wilke eta Adrian Piper artistekin. Berriki egin dituen erakusketen artean, honako hauek daude: *Auto Italia*, Londres (2022ko urtarrila), *Rijksakademie* eta *mistral* (biak Amsterdamen, 2021), guztiak *Gift Science Archive (GSA)* performancearen parte bezala. *Brooklyn* Pratt Institutuan (New York) ikasi ondoren (1992-1994), Murray-Wassink Herbehereetara joan zen 1994an, Amsterdameko *Rietveld Akademi*an elkartruke-programa batean aritzera. Hurrengo bi urteetan (1995-1996) *Amsterdam* De Ateliers-en ikasi zuen, eta harrezkeroztik hiri horretan bizi da eta bertan lan egiten du.

////////////////////////////////////

**Azaroa 18, osteguna**

18:30

Lantegia 1

Sarrera dohainik, aurrez [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)-en izena emanaz gero, leku guztia bete arte

////////////////////////////////////

 [giftsciencearchive.net](http://giftsciencearchive.net)

 [vimeo.com/sands1974](https://vimeo.com/sands1974)

 [sands1974.com](http://sands1974.com)



Jarduera hau Aimar Arriolak ikertzaile AZkide gisa zentroan egiten duen *Forma-desira* proiektuaren parte da. + info: 62. orr.

ARTE BISUALAK / TOPAKETA  
URR. 19 eta 26 (Astr.)

# Sra. Polaroidska. Artista AZ-Kideak

*Emakume jakintsuen kontseilua*

Teresa Catalán eta Rosa María Calaf

ELKARRIZKETA HAUEN BIDEZ,  
GONBIDATUTAKO EMAKUMEEK  
BEREN BIZI- ETA LANBIDE-  
ESPERIENTZIAK TRANSMITTZEN  
ETA PARTEKATZEN DITUZTE, ETA  
ERREFERENTE GISA AGERTZEN DIRA.



Rosa María Calaf

Sra. Polaroiskak, Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe Azkuna Zentroko artista AZkideek beste bi topaketa proposatu dituzte hiru hilabete honetan, *Emakume jakintsuen kontseilua* proiektuaren barruan Lehena urriaren 19an izango da, Teresa Catalán musikagile, musikari, ikertzaile eta irakaslearekin. Jakiunde Euskadiko, Nafarroako eta Akitaniako Arte, Zientzia eta Letren Akademiako kide osoa da, eta Arte Eszenikoen eta Musikaren Estatuko Kontseiluko, Musikaren Batzorde Nazionalako eta Errege Antzokiaren Aholku Batzordeko kidea da.

Bigarrena urriaren 26an izango da eta Rosa María Calaf kazetariak parte hartuko du. TVEn ibilbiderik luze eta oparoena duen berriemaileak Moskuko korrespontsalia ireki zuen Sobietar Batasunarentzat, Vienako korrespontsalia ekialde-Balkanetako herrialdeentzat eta Hong Kongeko Asia-Ozeano Bareko eskualdearentzat. Gainera, Hego Amerikarako Buenos Airesko korrespontsalia berregituratu zuen eta New Yorkeko korrespontsala izan da Estatu Batuetarako eta Kanadarako, Erromako Italiarako eta Vatikanorako, eta Pekinen Txinarako eta Asiarako.

Biak ala biak dira erreferenteak, emakumeek tradizioz maskulinoak izan diren lanbide-esparruetan bidea nola urratu duten ikusteko. Beren ibilbideak eta bizipenak izango dira *Emakume jakintsuen kontseilua* bi saio berrien ardatza.

Alde publiko horrekin batera, Sra. Polaroiska koaderno baten argitalpenean ari da lanean. Bertan, gonbidatutako emakumeek partekatutako jakinduria jasoko da, zikloko saioetan Abigail Lazkoz, Conxita Herrero, Bea Aparicio, Juana García eta Naiara Goikoetxea artistek sortu dituzten kontakizun grafikoekin batera.

Saioetan jakintsu hauek hartu dute parte orain arte: Dolores Juliano gizarte-antropologoa, Argentinan jaioa (1932) eta Bartzelonan erbesteratua Videlaren estatu-kolpearen ondoren; Amaia Lasa, poesia euskaraz idatzi zuen lehen emakumeetako bat; Garbiñe Mendizabal, genero-berdintasunerako aholkularia eta espezialista; Luisa Menéndez, Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaiko Plataformako ekintzailea; Adelina Moya, Historian doktorea eta Bilboko Arte Ederren Fakultateko irakasle titularra; eta, Arantxa Urretabizkaia, idazlea eta euskaltzaina.

---

**MARIA IBARRETXE** eta **ALAITZ ARENZANAK** eratzen dute **SRA. POLAROISKA**. kolektibo artistikoa. Beren obrak zinema esperimentalak, ekintzako artea, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jarduerarengatik, eta nazioarteko arte-zentro

eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak: Artium Museoa, Reina Sofia Museoa, Guggenheim Museoa, Stockholmeko Cervantes Institutua, Manchester, Parisko Festival des Cinémas Différents, Casa Encendida, Bilbao Arte Fundazioa, eta abar.

////////////////////////////////////

**Urriak 19, asteartea**  
**Sabia: Teresa Catalán**  
18:30

**Urriak 26, asteartea**  
**Sabia: Rosa María Calaf**  
18:30

Sarrera dohainik, aurrez [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus) webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////


 [cargocollective.com/srapolaroiska](http://cargocollective.com/srapolaroiska)

 [sra.polaroiska](mailto:sra.polaroiska)

# Irati Inoriza, Caterina Avataneorekin elkarrizketan

*Nadie se baña dos veces en el mismo río,  
sino en el pantano mismo (Inor ez da bi  
aldiz bainatzen ibai berean,  
urtegi berean baizik)*

IRATI INORIZAREN IKUS-ENTZUNEZKO INSTALAZIOAK EKOSISTEMA BAT ERAIKITZEN DU, NON BISITARIAK IRUDIAREN ETA ADIERAZLEAREN, MEMORIAREN ETA PROIEKZIOAREN, HISTORIAREN ETA ERREALITATEAREN, ARKEOLOGIAREN ETA PROSPEKTIBAREN, ETA ESPERIENTZIAREN ETA IKUSKIZUNAREN ARTEKO LOTURAN MURGILTZEN BAITIRA.





Irati Inoriza artistak, *Inor ez da bi aldiz bainatzen ibai berean, urtegi berean baizik* ikusentzunezko proiektuan, akuositate-forma zaharrak eta berriak esploratzen ditu eta “erreal” esaten diogunaren interpretazio jariakorrek estimulatzen ditu, hori ulertzeko eta eraikitzeko ahalmen berriak aurkituz. Instalazioa urriaren 10era arte bisita daiteke [Lantegia ideien laborategiko Bat espazioan](#).

Azkuna Zentrok igerilekuan gauez filmatuta dago. Igeriketa sinkronizatuan dabilzan igerilari batzuk ikusten dira «beren mugimenduekin gorputzaren mugak bultzatuz eta indarra, erresistentzia eta malgutasuna erakutsiz, urarekin harmonian eta ausardian», [Caterina Avataneo](#) komisarioak azaldu duenez. Irati Inorizak harekin hitz egingo du bere lanari buruz urriaren 6an egingo den topaketan. «Urpean izate bakar bat bihurtzen dira, baina arnasketak bihurtzen ditu, ezinbestean, izaki zaurgarri. Beste behin ere azalerratu beharrean daude, azkar eta bakoitza bere aldetik, arnasa berreskuratuz eta berriro gizaki bihurtuz», gaineratu du.

«Ilargiak gidatzen ditu bere bihurtzeak, eta naturaren indar ikusezinetan desegiten den beste izaki itzel bihurtzen da. Lamiei –euskar pertsonaia mitologiko gisa–, Ofeliaren irudikapenari, ur gorputzen inguruko Astrida Neimanisen pentsamenduari edo Billie Eilishen bideo musikalen ikusizko lengoaiari erreferentzia eginez, Inorizak ura zein gaua intuizioarako leku bihurtzen ditu, gorputzak naturarekin eta teknologiarekin erlazio jariakor batean egon daitezen. Artistak euskal mitologia, artearen historia eta kultura garaikidea hartzen ditu erreferentziatzat norbanakoaren gorputzari zein sozialari eragiten dioten topaketen eta talken bidez sortutako harreman-sare interkonektatu bat induskatzeko eta aurreikusteko», azaltzen du Caterina Avataneo.

---

**IRATI INORIZA** Artista eta UPV/EHU Arte Garaikideko Ikerketako doktoregaia. Brnoko Unibertsitateko Performanceko Atelier-en espezializatu zituen ikasketak (Txekiar E., 2014). 2021ean bere Ejercicios a Ofelia proiektua TACA espazioan (Mallorca) erakustera gonbidatu dute eta Miquel Casablanca - Sant Andreu Contemporani Sarian hautatua. 2020an, *with(in) with(out)* proiektuarekin LOOP (Bartzelona) bideo jaialdian, Ángels Galerian, Rekalde aretoan (Bilbo) eta INJUVE 2018/19-n (Madril) parte hartu du.

**CATERINA AVATANEO** (Italia, 1989) Londres eta Turin artean lan egiten duen kuratore independentea da. NEON 2017 Kuratore saria jaso du, eta bere proiektuak erakunde eta galerietan erakutsi dituzte, hala nola, hauetan: Kunstraum, Austrian Cultural Forum, Zabłudowicz Collection (Londres); HAUS eta Pina (Viena); Britta Rettberg (Munich); Sixty Eight Art Institute (Kopenhage). 2019az geroztik, DEMO plataformako kuratorea da, eta, gaur egun, Turinen Cripta747 egonaldi-programako kuratore-taldeko kidea da.

---

////////////////////////////////////

#### **Erakusketa**

**Irailak 16 > Urriak 10**

Asteartea-ostirala: 16:00 - 20:00

Larunbatak: 11:00 - 20:00h

Igandeak: 11:00 - 15:00h

Lantegia 2. Bat espazioa

Sarrera dohainik

#### **Solasaldia**

**Urriak 6, asteazkena**

Sala Bastida / Streaming

[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

18:30

Sarrera dohainik, aurrez

[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

webgunean izena emanaz

gero, leku guztia bete arte


////////////////////////////////////

KULTURA DIGITALAK / ERREALITATE BIRTUALAREN  
INSTALAZIOA **IRA. 16** (Ostg.) > **URR. 10** (Iga.)

# Iker Vázquez

## *Az Reality Lab*

«AZ REALITY LAB FORMALIZATZEN  
DA PARTE HARTZEN DUEN  
ARTISTA BAKOITZAREN 3DKO  
ERRETRATUEKIN, ZEINAK, BEREZ,  
ERREALITATE AREAGOTUAN  
BISTARATZEN BAITIRA QR KODEAK  
ESKANEATUZ.»



Iker Vázquezek *Az Reality Lab* proiektuaren emaitza erakusten du Atarian, zeinak emakumeak artearen munduan duen lekua lantzen duen, errealitate areagotuko teknologiek sormen- eta erakusketa-arloan ematen dituzten aukerei buruzko ikerketatik abiatuta.

Ane Pikaza, Eva Balmisa, Itxaso Díaz, Oihane Sánchez Duro eta Saioa Olmo artistek parte hartu dute prozesuan. Bakoitzak bere irudikapenetik haratago doazen kontzeptuak txertatu ditu bere errealitatetik. «Erakusketa osatzen duten piezak sortzeko elkarrizketak egin dira zenbait hilabetez, eta emaitza erantzun formal bateratu bat izan da, non lanak indibidualtasunetik sortu diren, baina elkarren osagarriak diren», azaldu du Iker Vázquezek. Emaitza «panoramika berezi bat da, artistei eta artearen munduari buruzko hasierako proposamena gainditzen duena, eta sortzaileak eta haien funtsa bistaratzen dituena, hain zuzen, beren lanean ikusezin uzten diren ikuspegietako batzuk: haien ideiak, sentimenduak eta egiteko moduak», gaineratu du.

////////////////////////////////////

Irailak 16 > urriak 10

9:00 - 21:00

Kulturen Ataria

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////



**IKER VÁZQUEZ** Artista, ikertzailea, diseinatzailea, programatzailea eta knowmad-a, batez ere, iragana eta oraina bilaketaren eta bildumaren bidez lotzen dituzten proiektuetan lan egiten duen sortzailea da, analogikoa eta digitala konbinatzen

dituzten prozesuak eta gailuak garatuz eta bertakotik globaltasunaz hitz eginez. Haren lanek eta proiektuek artea zalantzan jartzeko eta esperimintatzeko tresna gisa duen kontzepzioan dute sorburu. Azken urteetan, espazio publikoko instalazio iragankorrak izan ditu ardatz, eta hainbat teknikaz eta metodologia esperimentalez baliatu da: pintura fotoluminiszentea erabiliz, hiri-jokoak sortuz, publizitate-elementuen ohiko erabilerak aldatuz eta tokiko eragileekiko loturak bilatuz, parte-hartzean funtsatutako proiektuak garatzeko.

ARTE BIZIAK / DANTZA **AZA. 3** (Astz.)

## eszenAZ


Azskuna Zentroko arte eszenikoen  
denboraldia  
2021-2022

# Les Impuxibles

*Suite TOC n° 6*

**Gizarte inklusioari eta arte eszenikoen hezkuntzari  
buruzko XIII. Jardunaldiak**

LES IMPUXIBLES LENGOAIEIEN  
NAHASKETA LANTZEN DU.  
MUSIKA ETA MUGIMENDUA BESTE  
DIZIPLINA ESZENIKO BATZUEKIN  
UZTARTZEN DITUEN BILAKETA.



Clara eta Ariadna Peya ahizpek osatzen duten **Les Impuxibles** konpainiak **Suite TOC nº 6** aurkeztuko du. Kontzertu bat, ikuskizun bat, mugako espazio bat gizartearen isildutako gai bat argira atera nahi duena: TOCaren sintomatologia (nahasmendu obsesibo-kompulsiboa). Nagusi diren begiraden hegemoniaren aurkako diskurtso ofizialen periferiara egindako hurbilketa.

«Zein dira gizarte osasuntsu batean ezartzen diren parametroak? Bost interpretatzaile agertokian, bakoitza diziplina desberdin batekoa, hausnarrean, sufrimendu mentalaren inguruan, lengoaia eszenikoen nahasketan sakonduz eta kodeak bateratuz», azaldu dute sortzaileek.

**Suite TOC nº 6** ikuskizunak beste hizkuntza eszeniko baten gisa erabiltzen du zeinu-hizkuntza, hala azpitu-tuluen eta interpretatzaile baten bidez, nola elementu artistiko gisa hartuta esperimintatzeko.

////////////////////////////////////

**Azaroak 3, asteazkena**

20:00

Auditorioa

7€ / 5€ Az txartelarekin

**Sarrera dohainik  
Gizarteratzeari eta Arte  
Eszenikoen Hezkuntzari  
buruzko XIII. Jardunaldietan  
izena emanda dauden  
lagunentzat.**

////////////////////////////////////

Erabili Bilbao Kultura  
Bonua Az Infon sarrerak  
erosteko

---

**LES IMPUXIBLES** piano-jotzaile baten eta dantzari baten arteko bat-egite artistikoa da. Bakoitzak bere aldetik duen kalitate artistikoaren indarra eta batzen dituen loturaren harmonia uztartzen ditu. Clara eta Ariadna Peya dira: ahizpak, sortzaileak eta interpretatzaileak. Les Impuxibles lengoaien nahasketa lantzen du. Musika eta mugimendua beste diziplina eszeniko batzuekin uztartzen dituen ikerketa;

amaitzen ez den eta berezko lengoaia eraikitzen eraman dituen ikerketa. Konpromiso sozialaren ondorioz, areagotu egin da artea salaketa eta aldaketa sozialerako bozgorailu gisa erabiltzeko beharra sortzaileengan, eta berdintasunerako politikaren alde agertu dira.

---

Pieza hau 2021eko azaroaren 3tik 5era Azkuna Zentroan egingo diren Gizarteratzeari eta Arte Eszenikoei buruzko XIII. Jardunaldietan sartuta dago. Informazio gehiago 14 orrialdean.

ARTE BIZIAK / ZIRKUA **AZA. 4** (Ostg.)

## eszenAZ

Azskuna Zentroko arte eszenikoen  
denboraldia  
2021-2022

# Cía. Colectivo Mur

## *Detuatu*

**Gizarteratzeari eta Arte Eszenikoei buruzko XIII.  
Jardunaldiak**

"DETUATU" ZIRKU  
INTEGRATZAILEAREN IKUSKIZUN  
BAT DA, ETA IKUSLEAK BIDAIA  
ERAMATEN DITU HARREMAN  
PERTSONALEN INTROSPEKZIORA.



Zer gertatzen da bi pertsona bakarka elkartzen direnean, arraza edo kondizioa kontuan hartu gabe, aurreiritzirik gabe?

**Mur** konpainiak *Detuatu* aurkeztuko du, gizabanako bat beste baten aurrean dagoenean -hirugarren pertsonarik gabe, interferentziarik gabe-, bikotearen barruan sortzen diren harreman pertsonalen introspektiorako bidaia. Komunikazio-prozesu orotan berezkoa den kortesia-une horren ondoren, gauzak gertatzen hasten dira. Sortzen dira egia, asperdura, jolasa, maitasuna, ulermena, entzutea, haserrea, hauskortasuna, konplizitatea, manipulazioa, konfiantza... Eta bikote horiek, fraktal konplexu baten zati gisa, eskala desberdinetan errepikatzen den eta itxuraz irregularra den geometria baten zati gisa, nola jokatuko dute besteekin harremanetan jartzean?

Nacho Floresek asmatu eta zuzendutako *Detuatu* bost binomiotan egituratuta dago, zirku-diziplina bakoitzerako espezialista batek lagunduta: Pau Portabella, Adrian Schwarzein, Anna Pascual, Marta Torrents eta Jordi Quero. Ikuskizuna amaitzeko, egitura bat eraikitzen da egurrezko enbor eta xafra landugabez, eta, horri esker, zuhaitz-formako irudi metaforiko bat sortzen da, gure gogoetan den misterioaren baso handiaren alegoria gisa.

Sortzaileek azaldu dutenez, «topaketan sortzen den imititatean, bi pertsonak begietara begiratu ahal izatean, aukera dugu ikuskizun honen abiapuntua diren emozioetan eta sentsazioetan sakontzeko».

////////////////////////////////////

**Azaroak 4, osteguna**

20:00

Auditorioa

7€ / 5€ Az txartelarekin

**Sarrera dohainik  
Gizarteratzeari eta Arte  
Esenikoen Hezkuntzari  
buruzko XIII. Jardunaldietan  
izena emanda dauden  
laguntzat.**

////////////////////////////////////

**Erabili Bilbao Kultura  
Bonua Az Infon sarrerak  
erosteko**

---

**CÍA. MUR (2017)** bere lehen eta izen bereko ikuskizunaren estreinaldiarekin sortu zen. Nacho Floresek artistikoki koordinatu zuen proiektua, Quim Aragórek ekoizpena eta Ojos de Brujo talde ezagunaren sortzaile Ramón Giménezek zuzendaritza musikala. *Mur* ikuskizunean, dibertsitate funtzionala duten eta ez duten artistek parte hartzen duten zirku-konpainia integratu baten

gako nagusiak finkatzen dira, betiere kontzeptu horizontal eta koral batetik, non poesia eta umorea nagusi diren, Nacho Floresen unibertso kontzeptual eta bisualean kokatuta. Eszenografia eta egitura biziarekin lan egitea, zura bezalako material nobleak, pertsonen arteko harremanei buruzko hausnarketa, umore absurdoa eta samurtasuna bere DNAren parte dira.

---

Pieza hau 2021eko azaroaren 3tik 5era Azkuna Zentroan egingo diren Gizarteratzeari eta Arte Eszenikoei buruzko XIII. Jardunaldietan sartuta dago. Informazio gehiago 14 orrialdean.

ARTE BIZIAK / DANTZA **AZA. 25.** (Ostg.)

# Cía. Daniel Abreu

## *La desnudez (Biluztasuna)*

Dantzaldia. La FuNdiciOn-en programa bat

«BILUZTASUNA INTIMITATE-  
LEKU HORRI DAGOKIO, NON  
JADA GALDERAK EZ DAUDEN.  
EDERTASUNA, DAGOENAREN  
ETA GERTATZEN DENAREN  
BILUZTASUNEAN». DANIEL ABREU





Espainiako eszenako konpainia garrantzitsuenetako bat den **Daniel Abreu** konpainiak *Biluztasuna* aurkeztuko du, intimitate-mota bati begiratu eta eusten dion eta hori kontaktzen duen proposamen koreografikoa.

Piezak erlazio baten egitate magikoa deskribatzen du, non galderak jada existitzen ez diren eta ekintza baizik ez dagoen. Bi irudi eszenan, musikarekin batera, musikaria eta haizearen soinu baxua metalean. *Biluztasunak* intimitate-leku horri dagokio, non jada galderak ez dauden. Edertasuna, dagoenaren eta gertatzen denaren biluztasunean.

Lan honen sormen-prozesua «izenik eta biderik gabe hasi zen», Daniel Abreu koreografoaren esanetan. «Bi urtez lurra lugorri utzi, eta, horretan geundela, edertasun handiagoa aurkitu genuen gauzetan, dantza-pausoetan, zabor-poltsetan eta tresna hautsietan. Eraiki eta suntsitu egiten genuen», azaldu du.

75 minutuko bidaia hau ikuslearen irakurketara zabaltzen da, zeinak ikus lezakeen flashback bat bezala, edo, besterik gabe, bikote batek afektura iristeko ibili beharreko bide bihurrien gisa.

Horrela, interpretatzaileek dantzaren poetika erabiltzen dute polaritate horietan igeri egiteko. Batzuetan, ukitu eta beroa eta izerdia trukatzan dituen esku baten une gorena, eta beste batzuetan, besterik gabe, gaizki maite duenarena. Eraiki eta suntsitu egiten da, arnasketaren ekintza bezala. Heriotzatik maitasunera bidaiatzen dute eta existitzen dira. Ikuskizun honetan argi estroboskopikoak erabiltzen dira.



**DANIEL ABREU** (Tenerife, 1976): 2014ko Dantza Sari Nazionala sorkuntza-kategorian, dantzaria, koreografoa eta Psikologian lizentziatua da. Interpretatzaile gisa, estatuko dantza- eta antzerki-konpainia eta -kolektibo batzuetan egin du lan. Sortzaile gisa, hirurogei

produkzio baino gehiagoko sormen-ibilbide luzea du, eta hainbat herrialdetan ikusi ahal izan dira bere lanak. Herrialde horietan kritikak, publikoak eta hainbat sariketarik aintzatetsi dute, eta egungo dantza-talderik garrantzitsuenetako bat da azken urteotan.

Bere konpainia-proiektua ia oharkabean sortu zen 2004an; izan ere, sorkuntzen eta kolaborazioen kopuruak ekarri zuen gaur egun Cía. Daniel Abreu izenez ezagutzen dugunaren kontzeptua.

Daniel Abreu konpainiaren Biluztasuna koreografiarik onena eta gizonezko dantza-interpretatzailearik onena zituen dantza-ikuskizuntzat hartu zuten 2018ko Max Sariatena.

////////////////////////////////////

## Azarok 25, osteguna

19:00

Auditoria

15€ / 12€ Az txartelarekin /  
65 urteko gorakoentzat /  
30 urtetik beherakoentzat /  
Ikasleak

////////////////////////////////////

### FITXA ARTISTIKOA:

Zuzendaritza, koreografia eta espazioa:

Daniel Abreu

Interpretatzaileak:

Dácil González y Daniel Abreu

Musikaria:

Hugo Portas

Musika:

Tarquino Merula, Claudio Monteverdi, Gabriel Fauré y Henry Purcell

Argiak:

Irene Cantero

Eskulturaren egilea:

David Benito

Jantzien egilea:

Angeles Marin

Koordinazio teknikoa:

David Benito

Produkzioko laguntzailea:

Teresa Rivera

Banaketa:

Elena Santonja · Esmanagement

Koprodukzioa:

Teatros del Canal y Festival Danzatic.

Lankideak:

Auditorio de Tenerife, Centro de Danza Canal y Teatro Victoria de Tenerife.

////////////////////////////////////

 [danielabreu.com](http://danielabreu.com)



Erabili Bilbao Kultura  
Bonua Az Infon sarrerak  
erosteko

ARTE BIZIAK / ESZENAZ / DANTZA **ABE. 16** (Ostg.)

## eszenAZ

Azkuna Zentroko  
arte eszenikoen denboraldia  
2021-2022

# Núria Guiu

## *Spiritual Boyfriends*

NÚRIA GUIUK, GORPUTZAREN ETA  
BOTEREAREN ARTEKO ERLAZIOA  
AZTERTZEN DU, YOGAREN  
MUGIMENDUETATIK ABIATUTA.  
BARNE-MUNDUAREKIN ETA MUNDU  
ESPIRITUALAREKIN ERLAZIONATUTA  
DAGO BEREZIKI YOGA, BAINA  
INDUSTRIA HANDI BILAKATU DA.

*Spiritual Boyfriends*. Argazkia: Alice Brazziti



EszenAZ-en denboraldiak abenduan jarraituko du, **Núria Guiu** koreografo bartzelonarraren *Spiritual Boyfriends*-ekin: gorputzaren eta boterearen arteko erlazioaren inguruko bakarlan bat. Antzezlan hizkuntza fisiko, bisual eta teatralaren bidez jorratzen da, hizkuntzen arteko mugak eta «autobiografia/errealitatea» eta «fikzioa» terminoen artekoak uztartuz.

2019an, Likes pieza eszenikoa aurkeztu zuen Azkuna Zentroan. Sare sozialei eta «atsegin dut» famatuen balioari buruzkoa zen, eta bizi dugun garai digitalari buruzko hausnarketa bat egiten zuen. Bada, horren ondoren, Zentrorra izuli da artista *Spiritual Boyfriends* sorkuntza berriarekin.

Núria Guiuk, lan honetan, yogaren praktika aztertzen du; yogaren ikerketa dokumental eta ikonografiko bat egiten du: yogako jarrerren eraikuntza historikoa eta jarrerrek gorputzei rol, arau eta botere-egiturak nola ezartzen dizkieten, autodiziplinaren, osasunaren eta edertasunaren kultura bat sortzen baitute. Egungo yoga, praktika espiritual bat bada ere, gorputzaren kapitalizazioan harrapatuta dago, hainbat kontzepturen bidez, hala nola edertasuna, osasuna eta autoterapiaren inguruko objektu fetixteen industria.

Artistaren arabera, «digitaltasuna desirarako espazio bat bezala eztabaidatzen da, baina baita kontrolerako espazio bat bezala ere, droga eta psikotropiko kolektibo bezala; arima (Interneten, entitate lurrunkor, birtual eta informatibo bezala ulertuta) gorputzaren materialtasunetik askatzen da eta nonahi eta modu ikusezinean behatu, ukitu eta manipulatu daiteke».

Núria Guiuk zera galdetzen dio bere buruari: Zer rol jokatzeko du Internetek immaterialtasunari, maitasunari, botereari, politika neoliberaleri eta horien kontrol eta zaintza sozialeko teknikei dagokienez?



**NÚRIA GUIU** Bartzelonan bizi den artista bat da, eta dantza klasikoan graduatu zen Bartzelonako Antzerkiaren Institutuan. Iyengar Yogako irakasle tituluduna da, eta

UOCeko Antropologia eta Giza Bilakaerako Graduko ikaslea. Dantzari gisa, Cullberg Ballet, Gisele Vienne, Carte Blanche Dance Company eta Batsheva Dance Company konpainiekin lan egin du, besteak beste. Koreografo gisa, *Portal* (2012) eta *Likes* (2018) sortu ditu. Azken hori 2019an aurkeztu zuen Azkuna Zentroan. Aerowaves 2018 Europako plataformak hautatu zuen pieza, eta aipamen berezia jaso zuen 2018ko Bartzelona Hiria Sarietan, eta antzezlan onenaren saria 2018ko Bartzelonako Kritikaren Sarietan.

////////////////////////////////////

**Abenduak 16, osteguna**

19:00

Auditorioa

16€ / 12€ Az Txartelarekin

////////////////////////////////////

**Abenduak 16, osteguna**

11:00

Auditorioa

Ikasleentzako emanaldia

////////////////////////////////////

 [nuriaguii.com/spiritual-boyfriend](http://nuriaguii.com/spiritual-boyfriend)

**Erabili Bilbao Kultura  
Bonua Az Infon sarrerak  
erosteko**

# Francisco López

## *Criaturas Sónicas*

Hotsetan. Musika esperimentalako eta soinu-arteako programa

Francisco López konpositore eta audio-artistak hamarkadak daramatza mundu osoko entzuleak liluratzeko bere esperientzia sonikoekin, kanal anitzeko surround sistemak eta publikoaren begietarako bendak erabiliz. Artistak «monomedia egoera» esaten dio horri.

Urriaren 13an, Francisco Lópezek *Criaturas Sónicas* kontzertu bakarra eskainiko du: planeta osoan zehar egindako ingurune-grabazio originaletatik –naturalak zein artifizialak– sortutako piezez osatuta dago. «Ez dira soinu-paisaiak, irudikapenik gabeko soinu-mundu birtualak baizik», zehaztu du artistak. Publikoak bere esperientzia propioa garatzen du, murgiltzearen arauak eta parametroak soinuek berek –espazio gisa eta indar fisiko dinamiko gisa sentituta– definitzen dituzten ingurune batean.

ILUNTASUNEAN  
MURGILTZEN DIREN  
PERFORMANCEEN  
INTENTSITATE  
ETA SOINU-  
XEHETASUNAGATIK  
DA NAZIOARTEAN  
EZAGUNA, ETA  
HOTSETAN, AZKUNA  
ZENTROKO MUSIKA  
ESPERIMENTALEKO  
ETA SOINU-ARTEKO  
PROGRAMAREN  
DENBORALDIA  
IREKIKO DU  
*CRİATURAS SÓNICAS*  
KONTZERTUAREKIN.



franciscolopez.net

**FRANCISCO LÓPEZ** (Mandril, 1964) musika esperimentalako eta audio-arteako artista garrantzitsuenetako bat da.

Berrogei urte baino gehiago darama soinu-sorkuntzaren eta ingurune-grabazioen bidezko lanaren alorrean, eta denbora horretan soinu-unibertso erabat pertsonala eta ikonoklasta garatu du, mundua sakonki entzutea oinarritzat hartuta. Ehunka soinu-instalazio eta landa-grabazioetako proiektu eta kontzertu/performance egin ditu hirurogeita hamar herrialdetan baino gehiagotan.

////////////////////////////////////

**Urriak 13, asteazkena**

18:30h

Auditorioa

8€ / 5€ Az Txartelarekin

////////////////////////////////////

 [franciscolopez.net](http://franciscolopez.net)

 [franciscolopez.bandcamp.com](http://franciscolopez.bandcamp.com)

Erabili Bilbao Kultura  
Bonua Az Infon sarrerak  
erosteko

## John Richards

Hotsetan. Musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa

**John Richards**, musika elektronikoaren arloan aitzindaria den musikari eta konpositoreak bere azken lanak aurkeztuko ditu azaroaren 17an **Hotsetan, musika esperimentaleko programaren** barruan.

Artista ingelesak izen handia du elektroakustikaren komunitatean eta aipamen bat jaso zuen Bourgeseko Musika Elektroakustikoaren Nazioarteko Institutuan (1997). Bada, 1999az geroztik, DIY tresnen bidezko interpretazioa eta konposiziorako ingurune interaktiboan sorkuntza esploratzen dihardu.

Richardsek Sand (Soul Jazz Records) post-punk taldearekin eta kREEPArekin –2000n sortu zuen Hilary Jefferyrekin– egindako lanak ere nazioarteko ospea jaso zuen. kREEPArekin lan egiten zuen bitartean, Richardsek kreedback instrumentua garatu zuen: soinua sortzeko gailu multzo bat da, botatako audio-hardware analogiko batekin; artistak berak egin ditu gailuok, eta konektatuta daude, atzeraelikadurako labirinto bat sortzeko.



Foto: Katja Goljat

**JOHN RICHARDS** (1966, Erresuma Batua): Dartington College of Arts eskolan eta Yorkeko Unibertsitatean ikasi zuen, eta, 2002an, musika elektroakustikoko doktorego

batekin osatu zituen ikasketak. 1999an, Andrew Hugillekin eta Leigh Landyrekin elkartu zen, De Montfort Unibertsitateko Musika, Teknologia eta Berrikuntzako ikertaldeko (MTIRC, gaur egun) kide izateko, eta, bertan, bi ikasketa abiarazten lagundu zuen: Musika, Teknologia eta Berrikuntza, alde batetik, eta Musika, Teknologia eta Interpretazioa, bestetik. Musika elektroniko garaikideari buruzko zenbait artikulua akademiko idatzi ditu, teoria postdigitala eta jarduteko eta hibridatzeko modu berriak barne hartzen dituztenak.

JOHN RICHARDSEK  
BI HAMARKADA  
DARAMATZA DIY  
TRESNEN BIDEZKO  
INTERPRETAZIOA ETA  
KONPOSIZIORAKO  
INGURUNE  
INTERAKTIBOEN  
SORKUNTZA  
ESPLORATZEN. .



### Kontzertua

**Azaroak 17, asteazkena**

18:30

Lantegia 1

12€ / 10€ AZ txartelarekin

### Tailerra

**Azaroak 15 eta 16**

18€ / 12€ AZ txartelarekin

17:00-20:00



**Erabili Bilbao Kultura  
Bonua Az Infon sarrerak  
erosteko**

ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ARTISTA AZ-KIDEA  
URR. 21 Y 22 (ostg. eta ostr.)

# Laida Lertxundi

## 8 Topaketa

PROIEKTUAREN BIDEZ "PELIKULAREN FILMAKETA" BIRPLANTEATZEKO ASMOA DAGO; INGURUNE NATURAL BATEAN EGINDAKO JARDUERA BATERATUTZAT HARTZEA, BAITA ERAKUNDE AKADEMIKOEN MUGETATIK KANPOKO ESPERIMENTU PEDAGOGIKOTZAT ERE.



Laida Lertxundi

Laida Lertxundi Artista Az-Kideak bultzatutako *8 Topaketa* proiektuak *Sublime dena etenda (kamera)* izenburua duen V. topaketarekin emango dio amaiera 2021eko lehen fase honi, *Clara Shulmann* artista gonbidatua bertan dela. Clara Shulmannek *The Compagny she Keeps* tailerra eman ostean, filmaketa Mugarran egingo dute.

*8 Topaketa* proiektua elkarlanean oinarritutako zortzi tailer eta filmaketaz osatuta dago eta horien emaitza 16 mm-tan egindako obra bat izango da. Topaketa bakoitzak bi zati ditu: lehenengoan, Azkuna Zentroan tailer bat egiten da, artista gonbidatu batekin; bigarren zatia, berriz, Bizkaiko mendi batean egiten da –guztira, zortzi izango dira-. Filmaketa bakoitzean ohiko zinema-ekoizpeneko faseetako (kokapena, interpretazioa, gidoia, soinu-banda, ekoizpena, kamera, argiztapena eta edizioa) prozesu zehatz bat lantzen da eta, beste esanahi bat emanaz, ideia eta parametro multzo zehatz bat bihurtzen da, mugimendua duen irudi-lan bat sortzeko.

Lehenengo lau topaketetan honako artista gonbidatu hauek hartu zuten parte: *Usoa Fullaondo* ikertzaile eta irakasleak Urkiolamendin; *Sirah Badiola* terapeuta somatikoak; *Keira Green* ikus-entzunezko artistak Orixolen; *Alejandro Alonso* komisario, idazle eta ikertzaileak Anboton; eta azkenik, *Ren Ebel* artista eta idazleak Gorbeian.

---

**LAIDA LERTXUNDI** (Bilbao, 1981) Artista eta zinemagilea da, eta Los Angelesen eta Euskal Herrian bizi eta lan egiten du. Zorroztasun kontzeptuala eta plazer sensuala uztartzuz, bere filmek lurra eta gorputzaren arteko paralelismoak egiten dituzte, plazer eta esperientzia gune diren aldetik. Bere lanak hemen erakutsi dira: Whitney Biennial, NY, Hammer Museum, LIAF Bienal Biennale, Lyon, Frieze Projects New York. Eta hainbat museo eta galeriatan, besteak beste, MoMa, NY,

Tate Modern eta Whitechapel Gallery, Londres, Angela Mewes Berlin, Joan Los Angeles, Human Resources Los Angeles, MAK Schindler House ICA Museo de Arte Moderno de Medellín Kolonbia, CCCB, PS1 MoMA, Museum of Contemporary Photography Chicago, Baltimore Museum of Art, Kunstverein, Hanburgo, eta Habanako Bienalean. Bere obra LUXek banatzen du Londresen, eta Reina Sofia Arte Zentroaren Museoko bildumaren parte da. 2020an euskal artearen Gure Artea saria jaso zuen.

---

Laida Lertxundi *8 topaketa* proiektua lantzen du artista Az-Kide gisa.

////////////////////  
**PROGRAMA:**

**I. topaketa: LANDA-GRABAZIOAK (TOKIA)**

Ekainak 17, osteguna  
Tailerra Usoa Fullaondorekin:  
Triangular el Deseo

Ekainak 18, ostirala \*  
Filmaketa Urkiolamendin

**II. topaketa: KEINUA (PERFORMANCEA)**

Uztailak 1, osteguna  
Tailerra Sirah Badiolarekin:  
Danza Presencia

Uztailak 2, ostirala\*  
Filmaketa Orixolen eta  
tailerra Keira Greenekin:  
Skotomorphogenesis

**III. topaketa: PERKUSIOAK (PARTITURAK)**

Uztailak 15, osteguna  
Tailerra Alejandro Alonso  
Diazeekin: Resonancias

Uztailak 16, ostirala\*  
Filmaketa Anboton

**IV. topaketa: ESFORTZUA (PRODUKZIOA)**

Irailak 23, osteguna  
Tailerra Ren Ebelek: Map  
making

Irailak 24, ostirala\*  
Filmaketa Gorbeian

**V. topaketa: ETENDAKO SUBLIMEA (KAMERA)**

Urriak 21, osteguna  
Tailerra Clara Schulmannek:  
The Compagny she Keeps

Urriak 22, ostirala\*  
Filmaketa Mugarran

\*Kanpoko filmaketa  
larunbatean edo igandean  
egingo da, eguraldiaren  
arabera.

Parte-hartzaileek lagundu  
beharko dute ikus-entzunezko  
materiala lekualdatzen  
eta muntatzen, filmatze-  
prozesuaren barruan.

Sarrera dohainik, aurrez  
azkunazentroa.eus  
webgunean izena emanaz  
gero, leku guztia bete arte

////////////////////

## Film Sozialak

### Zinema Ikusezinaren Nazioarteko 13. Jaialdia

Kultura, Communication y Desarrollo 'KCD'

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren 13. edizioa egingo da Azkuna Zentroan. Ohiko pantailetan agertzen ez diren errealitate sozialetarako leiho bat da erakusketa, eta aniztasuna eta konpromiso soziala ikusarazten ditu. [Film Sozialak-ek](#) jasangarritasunari, genero-ekitateari, kulturartekotasunari, giza eskubideei, migrazioei, sexu-aniztasunei, aniztasun funtzionalei eta abarri buruzko eztabaidak sustatzen ditu, eta gizarte inklusiboagoak, ekitatiboagoak eta jasangarriagoak sortzeko tresna bat da.



Urriak 14 > 21

Golem Alhóndiga Zinemak

Sarrerak: Golem  
AlhóndigaZinemako  
txarteldegian eta [golem.es](http://golem.es)

Kontsultatu programa osoa  
hemen: [kcd-ongd.org/invisible](http://kcd-ongd.org/invisible)



---

## Zinemakumeak Gara

### Emakumeek zuzendutako zinemaren erakusketaren 26. edizioa

Zinemakumeak gara! erakusketak Lola Salvador Maldonado gidolari eta idazlea omenduko du aurtengo edizioan, 'Simone de Beauvoir' saria emanez.

Saria jaso ostean, elkarrizketa-hizketaldi batean parte hartuko du, Almudena Cachorekin. Egunari amaiera emateko, *El crimen de Cuenca* (1980) filma proiektatuko da. Pilar Mirók zuzentzen du filma, eta gidoia Lola Salvador Maldonadok idatzia da, 1970eko hamarkadaren amaieran, izenburu bereko bere liburuan oinarrituta.

Filmak 1910ean herri hartan desagertutako artzain baten istorioa kontatzen du, Guardia Zibilak bi atxilotuei egindako torturak barne. Horren ondorioz, urte eta erdi baino gehiagoz atxilotu zuten, eta bere errealdorea prozesu militar baten pean jarri zuten. Azkenean, 1981. urtearen erdialdean estreinatu zen, eta zentsura desagertu zenetik debekatutako film espainiar bakarra izan zenez, erabat arrakastatsua izan zen Pilar Miróren bigarren film luze hau.



Urriak 25, lunes

Golem Alhóndiga Zinemak

4€

Sarrerak: Golem  
AlhóndigaZinemako  
txarteldegian eta [golem.es](http://golem.es)

Informazio gehiago:  
[zinemakumeak.com](http://zinemakumeak.com)





ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

## 63° Zinebi.

### Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia

ZINEBI, Bilboko Udalak antolatutako Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak bost kontinenteetako zuzendarien ikus-entzunezko lanak aurkeztuko ditu Azkuna Zentroan, lehiaketaren 63. ediziorako hautatuak.

////////////////////////////////////

Azaroak 13-20

Larunbata > larunbata

Informazio gehiago: [zinebi.eus](http://zinebi.eus)

////////////////////////////////////

**ZINE  
BI**





ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK /  
ZINEMATEKA URR. 6 > ABE. 16

# Jean-Pierre Melville. Gaua, katuak eta jazz

////////////////////////////////////  
Urriak 6 > Abenduak 16  
Asteazkenak eta ostegunak  
Golem Alhóndiga Zinemak  
5€ / 4€ con Az Txartelarekin  
Sarrerak: Golem  
AlhóndigaZinemako  
txarteldegian eta golem.es  
////////////////////////////////////

Laguntzailea: **INSTITUT  
FRANÇAIS**  
BILBAO

Pier Paolo Pasoliniren eta Luis García Berlangaren zikloen ostean, Azkuna Zentroko Zinematekarak Europako zinemagintzan ezinbesteko zuzendaria izandako [Jean-Pierre Melvilleren](#) atzerabegiakoarekin itxiko du 2021eko programazioa.

Ziklo honetan programatutako hamar filmek zinemagilearen ibilbidea osatuko dute; Nouvelle Vague-ren sortzaileetako bat izan zen, eta Frantziako zinema polarraren eta Frantziako erresistentziaren adierazgarri nagusia. Carlos Aguilar Gutiérrez historialari zinematografikoak deskribatu zuenez, «misantropoa eta harroa, mitomanoa eta obsesiboa, muturrerainoko independentea, jazzaren, katuen eta gauaren maitalea», hari buruz esan ohi da film 'beltzak' egin zituzten Europako errealizadore guztien artean amerikarena izan zela. Horregatik, haren ondarea kultuko eta erreferentziako filmografia da zinema-zuzendari garaikide asko eta askorentzat.

Zinemagilearen obra bereziak ospetsu bihurtu zituen Alain Delon, Lino Ventura eta arestian hildako Jean-Paul Belmondo bezalako aktoreak, eta erreferente bilakatu zituen, bereziki Nouvelle Vague-renak eta oro har Frantziako zinemarenak.

Zikloa hasteko, Melville ikus-entzunezkoen ekoizpenean murgilarazi zuen [24 heures dans la vie d'un clown](#) (1946) dokumental laburra proiektatuko da, bai eta Jean Marcel Bruller-en Vercors-en eleberrian oinarritutako [Le Silence de la mer](#) (1946) film luzea ere. Haren maisulantzat jotako [Bob le flambeur](#) (1956) lana izango da hurrengoa. «Parisi idatzitako maitasun gutuna», Melvillek berak esan zuenez, zinema polarraren ernamuina izan zena. New Yorken kokatutako [Deux hommes dans Manhattan](#) (1959) filmarekin estreinatu zen polizia-zineman, Melville bera protagonista zela.

Nouvelle Vague-ko guraso espiritualetako bat bihurturik, [Léon Morin, prêtre](#) (1961) zuzendu zuen, Emmanuelle Riva eta Jean Paul Belmondo bezalako lehen mailako aktore frantsesekin; [Le doulos](#) (1962) eta [Le deuxième souffle](#) (1966) egitean, zinema polarraren adierazle nagusi bilakatu zen, gangsterren 40ko hamarkadako zinema beltzaren frantziar etorkian.

Melvillek bere hiru film onenak zuzendu zituen gero, bat-batean hil baino lehen: [Le samurai](#) (1967), [Le cercle rouge](#) (1970) eta [Un flic](#) (1972) trilogiarekin, Alain Delon protagonista zela, zinema beltzaren gailurrera igo zen zuzendari frantziarra.

---

---

## PROGRAMA

---

---

### 24 heures de la vie d'un clown (1946) + Le silence de la mer (1949)

Urriak 6, asteazkena / 17:00  
Urriak 7, osteguna / 19:00

### 24 heures de la vie d'un clown (1946)



Beby pailazo profesionalaren bizitzako egun bati buruzko kontakizuna: haren oroitzapenak, lana eta eguneroko bizitza.

18' / Frantzia / Z: Jean-Pierre Melville / G: Jean-Pierre Melville / A: Beby, Maïss.

---

### Le silence de la mer (1949)



Bigarren Mundu Gerra (1939-1945). Alemaniar tropek Frantzia okupatu duten garaian, agure batek eta bere ilobak ofizial nazi adeitsu batekin partekatu beharko dute ostalua, eta harekin bizi.

83' / Frantzia / Z: Jean-Pierre Melville / G: Jean-Pierre Melville / A: Howard Vernon, Jean-Marie Robain, Nicole Stephane, Georges Patrix, Ami Aaroe, Denis Sadier.

---

### Bob le flambeur (1956)

Urriak 13, asteazkena / 17:00  
Urriak 14, osteguna / 19:00



Gangster zaharra da Bob, diru guztia galtzeko zorian dagoen jokalaria amorratua. Halatan, lagunaren aholkuei jaramonik egin gabe, Dauvilleko kasinoa lapurtzea erabakiko du. Ganoraz antolatuta du guztia, baina polizia badaki lapurretaren berri.

101' / Frantzia / Z: Jean-Pierre Melville / G: Jean-Pierre Melville / A: Roger Duchesne, Isabelle Corey, Daniel Cauchy, Guy Decomble, André Garret, Claude Cervel, Simone Paris, Howard Vernon.

---

### Deux hommes dans Manhattan (1959)

Urriak 27, asteazkena / 17:00  
Urriak 28, osteguna / 19:00



NBEk New Yorken duen egoitzan lan egiten duen diplomazialari frantziar bat desagertu da era sinetsgaitzean. Moreau (Jean-Pierre Melville) eta Delmas (Pierre Grasset) kazetari frantsesak New Yorkera joango dira, non ote den edo hiria uztera behartu zezaketen arrazoi misterioitsuak ezagutzeko.

---

84' / Frantzia / Z: Jean-Pierre Melville / G: Jean-Pierre Melville / A: Jean-Pierre Melville, Pierre Grasset, Christiane Eudes, Paula Dehelly, Ginger Hall, Colette Fleury, Jean Darcante, Michèle Bailly.

---

### Léon Morin, prêtre (1961)

Azaroak 3, asteazkena / 17:00  
Azaroak 4, osteguna / 19:00



Bigarren Mundu Gerra (1939-1945). Frantziako hiri txiki batean bizi da Barny, posta zerbitzuan lan egiten duen alargun gaztea. Hark eta alabak gerrak, errazionamenduak, merkatu beltzak eta sarekadek eragindako bizimodu latza jasaten dute. Aita judua duen alaba deportatu ez dezaten, landa-eremura bidaliko du. Baina, etsipenak jota, aitortekuan bilatuko du kontsolamendua, atea dela adierazita barrua hustuz.

117' / Frantzia / Z: Jean-Pierre Melville / G: Jean-Pierre Melville / A: Jean-Paul Belmondo, Emmanuelle Riva, Irène Tunc, Nicole Mirel, Gisèle Grimm, Marco Behar, Monique Bertho, Gerard Buhar, Howard Vernon.

---

## Le doulos (1962)

Azaroak 10, asteazkena / 17:00

Azaroak 11, osteguna / 19:00



Espetxetik irten ondoren, Maurice Faugelek bere lagun Gilbert Varnove hilko du. Ondoren, lapurreta bat prestatzen ibiliko da, eta horretarako poliziaren isil-mandataria izan daitekeen Silienek (Belmondo) emango dizkion tresnak beharko ditu. Lapurreta oker irtengo da, eta Mauricek, Silienek traizio egin diola susmatuta, harekin kontuak argitzea erabakiko du.

108' / Frantzia / Z: Jean-Pierre Melville / G: Jean-Pierre Melville / A: Jean-Paul Belmondo, Serge Reggiani, Jean Desailly, Michel Piccoli, René Lefèvre, Carl Studer, Monique Hennessy, Marcel Cuvelier, Philippe Nahon.

## L'Armée des ombres (1969)

Azaroak 24, asteazkena / 17:00

Azaroak 25, osteguna / 19:00



Philippe Gerbier (Lino Ventura) ingeniari zibila da, ahalegin batean Frantziako erresistentzia adoretzuaren alde saiatu dena. Baina iritsiko da polizia kolaborazionistak harrapatuko duen eguna, eta kontzentrazio-

esparru batean atxikiko dute, arretaz zainduta. Lekualdaketa bat baliatuta, ihes egitea lortuko du, azkar batean modua bilatuta. Une horretatik aurrera, haren testigantza biziko dugu erresistentziaren egunerokoa eta inbaditzaile ahaltsuaren aurreko zailtasunak.

139' / Frantzia / Z: Jean-Pierre Melville / G: Jean-Pierre Melville / A: Lino Ventura, Simone Signoret, Paul Meurisse, Jean-Pierre Cassel, Paul Crauchet, Serge Reggiani, Claude Mann, Christian Barbier.

## Le cercle rouge (1970)

Abenduak 1, asteazkena / 17:00

Abenduak 2, osteguna / 19:00



Frantziako espetxe batean zigorra beteta Corey aske irten den bitartean, Mattei komisario beldurgarriak zaindutako Vogel kriminalak ihes egingo du bidaian doan trenetik. Bazkide ohi bati lapurreta egin ondoren, Coreyk Vogelekin egingo du topo, eta bitxiak lapurtzeko taldea osatzea proposatuko dio.

140' / Frantzia / Z: Jean-Pierre Melville / G: Jean-Pierre Melville / A: Alain Delon, Bourvil, Gian Maria Volonté, Yves Montand, François Périer, André Eycan, Paul Crauchet, Paul Amiot, René Berthier, Pierre Collet, Jean Champion, Yvan Chiffre, Yves Arcanel.

## Un flic (1972)

Abenduak 15, asteazkena / 17:00

Abenduak 16, osteguna / 19:00



Oinordeko aberats batek banku batean dauzkan funtsak lapurtu ditu lapur talde batek. Baina, lapurreta egin bitartean, lapurretako bat zaurituko da. Taldeko buruak Colemane komisarioari egin beharko dio aurre, bere lagunik onenetako bat denari.

196' / Frantzia / Z: Jean-Pierre Melville / G: Jean-Pierre Melville / A: Alain Delon, Richard Crenna, Catherine Deneuve, Riccardo Cucciolla, Michael Conrad, Paul Crauchet, Simone Valère, André Pousse, Jean Desailly.

## INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsioan (JB) proiektatuko dira.

Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.

+ info: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

**Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.**

## LABURDURAK

Z: Zuzendaria | A: Aktoreak

# Donostiako Zinemaldia Azkuna Zentroan

Aurten ere, Donostian oihala itxi ondoren, Azkuna Zentroak, Donostiako Zinemaldiarekin elkarlanean, azken edizioan estreinatutako film-sorta bat aurkeztuko du. Programak barne hartzen du zuzendari ospetsuen eta zinemagile berrien lana. Belaunaldi eta modu desberdinak dira zinemagintza ulertzeko.

Bilboko Zinemaldiaren zikloak, lehen aldiz, haur eta familientzako bi emanaldi izango ditu asteburuan goizez, eta filmen bi emanaldi larunbatean eta igandean.

Zikloa Javier Marco errealizadorearen *Josefina* opera primarekin hasiko da, eta Julia Ducournauren bigarren filmarekin jarraituko du; *Titane* izeneko film horrek Urrezko Palma eskuratu du aurtengo Canneseko Zinemaldian. Asteazkera zehar hiru zuzendari hasiberriren lanak proiektatuko dira: Noémi Merlantek *Mi lubita, mon amour*, Laura Wandelek *Un monde*, eta Tea Lindeburgen, *Du som er i himlen / As in heaven*.

Programa lan hauekin osatuko da: *Marocco*, Emanuel Pârvu zuzendari eta aktorearen bigarren filma; Laurent Cantet beterranoaren *Arthur Rambo*, François Ozonen *Tout S'est Bien Passé*, eta Xavier Giannoliren *Les Illusions Perdues*, Venezian aurkeztu ondoren.

Animazio-zinemako Alemaniako bi ekoizpenek osatuko dute Zinemaldiaren zikloa Azkuna Zentroan: *Elfinak* (Ute von Münchow-Pohl) eta *Dragoiaren gidaria* (Tomer Eshed).

////////////////////////////////////

**Irailak 27, astelehena > urriak 3, igandea**

19:30

Golem Alhóndiga Zinemak

5€ / 4€ Az txartelarekin

Sarrerak: zinetakoa

txartel-leihatilak

Golem Alhóndiga eta golem.es

////////////////////////////////////

## INFORMAZIOA

Programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke.

Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea, filma hasi ondoren ezin baita aretoan sartu.

Programa hau etxera eramatea gomendatzen dizugu.

Informazio gehiago: azkunazentroa.eus  
sansebastianfestival.com



**SSIFF**

Donostia Zinemaldia  
Festival de San Sebastián  
International Film Festival

---

## PROGRAMA DONOSTIA ZINEMALDIA

---

### Josefina

Irailak 27, astelehena 19:30




Juan espete-funtzionarioak igandero behatzen dio, isilik, Bertari; presoetako baten ama da Berta. Azkenik, Bertarekin hitz egitea lortuko du, baina, ia konturatu gabe, beste aita baten iburak egiten hasiko da, eta kartzela barruan Josefina izeneko alaba bat duela asmatuko du. Juan eta Bertak duten hutsunea betetzeko premiak, inguruan duten errealitatek haratago elkar topatzera eramango ditu.

### New Directors

VO Español 90' / España  
Z: Javier Marco  
G: Belén Sánchez-Arévalo  
A: Emma Suárez, Roberto Álamo, Miguel Bernardeau, Olivia Delcán

### Titane

Irailak 28, asteartea 19:30h



Espilkaziorik gabeko krimen batzuen ondoren, aita batek duela 10 urte desagertutako semea aurkituko du berriz. TITANIA: bero eta korrosioari erresistentzia handia dion metala, egoki-egokia aleazio erresistenteetarako

### Perlak

JBGA 107' / Frantzia

D / G: Julia Ducournau  
A: Agathe Rousselle, Vincent Lindon

### Un monde / Playground

Irailak 29, asteazkena 19:30




Belgika. Gaur egun. Nora, zazpi urteko neskato bat, eta bere anaia nagusia, Abel, eskolara itzuli dira. Norak ikusten duenean Abeli beste haur batzuk oldartzen zaizkiola, babesten saiatu eta aitari abisatuko dio. Baina Abelek isilik egotera behartuko du. Leialtasun-gatazka batean harrapatuta, Nora bere lekua aurkitzen saiatuko da, haurren munduaren eta helduenaren artean banatuta.

### Zabaltegi Tabakalera

JBGA 72' / Belgika  
Z / G: Laura Wandel  
A: Maya Vanderbeque, Günter Duret

### Du som er i himlen / As in heaven

Irailak 30, osteguna 19:30




XIX. mende amaierako egun batean betiko aldatuko da Lise 14 urteko neskaren bizitza. Bere neba-arrebetatik zaharrena da, bere familiako lehena da eskolara joaten eta ibaropenez eta konfiantzaz beteta ikusten du etorkizuna. Baina ama erditzen ari dela, badirudi gaizki doala zerbait. Gaua ilundu eta erditzeak aurrera egin ahala, Lise ulertzen hasiko da balitekeela etbekoandre gisa amaitzea neska koskor gisa hasi zuen eguna.

### Sail Ofiziala

JBGA 86' / Danimarka  
Z: Tea Lindeburg  
G: Tea Lindeburg  
Ar: Marcel Zyskind  
A: Flora Ofelia Hofmann  
Lindahl, Ida Caecilie Rasmussen, Palma Lindeburg Leth, Anna-Olivia Oster Coaklev, Flora Augusta, Kirsten Olesen, Lisbet Dahl, Stine Fischer Christensen...

### Arthur Rambo

Urria 1, ostirala 19:30



¿Quién es realmente Karim D? ¿El recién descubierto escritor adorado por los medios? ¿O su alias Arthur Rambo, autor de mensajes llenos de odio que alguien descubre en las redes sociales?

### Sail Ofiziala

JBGA 87' / Frantzia  
Z / G: Laurent Cantet  
A: Rabah Nait Oufella, Antoine Reinartz, Sofian Khammes

### Dragoiaren gidaria / Drachenreiter

Urria, 2 larunbata 12:00



Gizakiek dragoiak bizi diren harana inbaditzearekin mehatxatzen dutenean, Firedrakek, zilar koloreko herensuge gazte batek, eta bere lagunik onena den Sorrelek gaurean erdian ihes egiten dute, eta isilpean bilaketa handi batean murgiltzen dira, "Zeruaren ertza" aurkitzeko, beste

dragoiek elezahartzat hartzen duten toki mistiko bat.

### Haurrentzako zinema


JB Euskera 91' / Alemania

Z: Tomer Eshed

G: Johnny Smith

## Marocco / Mikado

Urria, 2 larunbata 18:30



Magda gazteak boluntario gisa egiten du lan ospitale batean, eta egun batean, bere lepoko garestia oparitutako dio gaixo dagoen haur bati; aita ziur dago berriro gezurretan ari dela. Magdak errugabea dela frogatzen duenean, aita lotsatuta eta errudun sentituko da, baina ezingo du onartu oker zegoela. Aita-alaben arteko harremana hautsita dago, nahaspilatuta; iraganeko erabakiek, berriz, ondorio konponezinak izango dituzte.

### New Directors

JBGA 96'

Errumania

Z: Emanuel Pârvu

G: Emanuel Pârvu, Alexandru

Popa

A: Serban Pavlu, Ana Indricau,

Crina Semciuc

## Les illusions perdues

Urria, 2 larunbata 20:30



Frantzia, XIX. mendea. Lucien poeta gazte ezezagunak itxaropen handiak ditu eta etorkizun ona izaten saiatu nahi du. Bere jaioterriko familia-inprenta utzi, Parisera joan eta, bere arte-mezenasak lagunduta,

arrakasta izaten saiatuko da. Baina handik gutxira abandonatu egingo du mezenasak, eta bakarrik konpondu beharko du Lucienek hiri zoragarri hartan. Hiriko gizartea benetan nolakoa den jakingo du: irabaziaren eta itxurakeriaren legeari eskainitako mundu bat. Giza komedia bat, non dena eros eta sal daitekeen: bai arrakasta literarioa, bai prentsa; nola politika, hala sentimenduak; ospeak nahiz arimak. Lucienek maitatu eta sufritu egingo du eta bizirik aterako da bere ilusioetatik.

### Perlak

JBGA 144' /Frantzia

Z: Xavier Giannoli

G: Jacques Fieschi, Xavier Giannoli. Adaptación de la novela homónima de Honoré de Balzac

A: Benjamin Voisin, Cécile de France, Vincent Lacoste, Xavier Dolan, Gérard Depardieu

## Elfnak / die heinzels – rückkehr der heinzelmännche

Urria 3, igandea 12:00



200 urtez baino gehiagoz, Elfkinstarrak lur azpian bizi izan dira, goi mundutik ezkutatu eta gizakiekiko interakzio-mota guztiak saihestuz. Egun batean, Elfiek, Kippeket eta Buckeck lurratzalera igotzea erabakiko dute.

### Haurrentzako zinema


JB Euskera 78' /Alemania

Z: Ute von Münchow-Pohl

G: Jan Strathmann

## Mi iubita, mon amour

Urria 3, igandea 18:30



Jeanne Errumaniara joango da lagunekin ezkondu aurreko agurra ospatzera, eta Nino eta bere familia ezagutuko ditu han. Zeharo desberdinak dira, baina bientzat uda sutsu eta amaigabe bat hasiko da.

### Zabaltegi Tabakalera

JBGA 95' / Frantzia

Z: Noémi Merlant

G: Noémi Merlant, Gimi Covaci

A: Gimi Covaci, Noémi Merlant, Sanda Codreanu, Clara Lama-Schmit, Alexia Lefaix

## Tout s'est bien passé

Urria 3, igandea 20:30



85 urterekin, Emmanuèleren aita ospitaleratu egin dute istripu zerebrobaskularra izan duelako. Esnatzean, oso ahul sentituko da, ez dela gai bere kabuz moldatzeko, eta bizitza grinaz maite duen gizon ikusbera honek hiltzen laguntzeko eskatuko dio alabari.

### Perlak

JBGA 113' / Frantzia

D / G: François Ozon

A: Sophie Marceau, André

Dussollier, Charlotte Rampling

## LABURDURAK

Z: Zuzendaria | Ar: Argazkia

G: Gidoia | A: Aktoreak

JBGA: Jatorrizko bertsoia gaztelaniaz azpiztitulatu

JB: Jatorrizko bertsoia



# ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / ARTE GARAIKIDEA

## ABE. 9 (ost.)

# Kinu#6

## *Ute Aurand*

### Kolektibo egoiliarren programa

**Tractora Koop.** E kooperatibaren Kinu proiektuaren seigarren saioa **Ute Aurand** (Frankfurt 1957) alemaniar zinemagileari eskainia dago.

**Ute Aurand** giltzarri bat da Europako 16 mm-ko zinema esperimentalean. Zinemagile, programatzaile eta ekoizle gisa egin duen lana ezinbestekoa da Berlingo zinema alternatiboaren kultura ulertzeko, jardunean aritu baita hor 80ko hamarkadatik orain arte.

**#Kinu6** programak *In die Erde gebaut* (2008) ikus-entzunezko pieza aurkeztuko du. 2004. eta 2007. urteen artean, Asia, Afrika, Amerika eta Ozeaniako arte eta kulturari eskainitako Zuricheko Rietberg Museoren handitze-lanak dokumentatu zituen artistak bere bolexarekin. Aldi berean, Utek loreak, animaliak eta intsektuak eta inguruneko argi eta landaretzan izandako aldaketak dokumentatu zituen, harreman formalak eta erritmikoak aurkituz. Filmak zimendatu aurreko indusketetatik inaugurazio-erakusketara eramaten gaitu. Uteren eskuetatik, museoko eraikuntzalanen eta filmaren eraikuntzaren beraren bidez egiten dugu aurrera, prozesu dinamiko eta elkarri lotuak diren aldetik.

**Ute Aurandek** bere filmak filmatzen eta muntatzen ditu, eta, askotan, pertsona maiteen, eguneroko egoeren eta une intimoen erretratua egiten du. Bere filmografian zehar, artistak zentzu erritmiko bereizgarria garatu du, zorrotzasuna, jolasa eta intuizioa uztartuz. Bere programazio-lana oinarritzakoa da emakumeek egindako 16 mm-ko zinema esperimentalak kartografiatzeko.

---

**UTE AURAND** Frankfurt 1957) 16 milimetroko 40 film baino gehiago egin ditu, zinema-egunkariaren tradizioetik edanez, eta horek Jonas Mekas, Marie Menken eta Margaret Tai bezalako artistekin jartzen du harremanetan. Azken 40 urteetan, Uteren lana arte garaikideko museuetan eta nazioarteko

zinema-jaialdietan erakutsi da. Azken hamarkadan, bere lanak onespena jaso du, eta atzerabegirakoak jarri dituzte Harvard Film Archive (2015), Tate Modern (2014), Pacific Film Archive (2012), Kunstverein Hamburgo eta Vancouverko Zinemateka aretoetan.

---

**Tractora Koop.** E. artisten kooperatibako Usue Arrieta eta Ainaara Elgoibar Kinu proiektua garatzen ari dira Azkuna Zentroan, Kolektibo egoiliarren programaren barruan.

////////////////////////////////////

#### **Proiektzioa**

**Abenduak 9, osteguna**

**Lantaldea, Ute Aurandek zuzendutako saioa**

**Abenduak 11, larunbata**

////////////////////////////////////



**GAU ZURIA**

**URRIAK 8, 9 ETA 10**

Ostirala, larunbata eta igandea  
Kulturen Ataria - Sarrera dohainik

# Penique Productions

*Hutsean ontziratzen*

Penique Productions kolektibo artistikoak *Hutsean* ontziratzen, pieza proposatzen du, 2021eko Gau Zuriaren esparruan, Azkuna Zentroaren Atarirako ad hoc prestatutako esku-hartzea.

Instalazio iragankorra eta puzgarria da, espazioan zabaldu eta hura inbaditzen duena. Atariko arkitekturekin erlazioan jarritz.

Instalazio puzgarriak konkistatua, tokia eraldatzen da, ehundura berri, argiztapen eta kolore monokromoaren bidez.



# Bilbao European Encounters 2021

AZAROAK 11, 18 ETA 25

Bilbao European Encounters topaketen zortzigarren edizioak trantsizio digitalaren erronkei helduko die, eta, horretarako, adimen artifizialaren Europako eredua, digitalizazioak fake news-ak ugaritzeko joeran duen rola eta automatizazioak desberdintasun eta bidegabekeria sozialaren esparru berrien sorreran duen eragina jorratu nahi ditu.

## PROGRAMA

---

**Osteguna, azaroak 11 | 19:00**

Adimen artifizialaren Europako eredua. Bilbao

**Osteguna, azaroak 18 | 19:00**


Desinformazioaren aurkako borroka Europan

**Osteguna, azaroak 25 | 19:00**

Berdintasun algoritmikoa

---

Bastida Aretoa  
-2 solairua  
Sarrera dohainik, edukiera bete arte  
+INFO: [bilbaoeuropeanencounters.org](http://bilbaoeuropeanencounters.org)



**GLOBERNANCE**

# dendAZ

THIS IS  
BASQUE DESIGN

**Diseinua**

**Ilustrazioa**

**Argitalpenak**

**Moda eta osagarriak**

**Dekorazioa**

**Upategia**

**Bertako 30 artista baino gehiago :** Abad, Abana Bilbao, Amarenak, Ane Pikaza, Angélica Barco, Apetitu, Cookplay, Eder Aurre, Elena Ciordia, Elena Sanz, Ekomodo, Espacio Aerre, Estudios Durero, Fabdefab, From The Basque Country, Higi Vandis, Katxi Klothing, Malús Arbide, Mario Gaztelu, Mario Paniego, Mrlaspiur, Nrt, Nuoc, Palo Palú, Pilar Morquillas, Proyecto Hemen, Susana Blasco, Tytti Thusberg, Yolanda Sánchez eta Ziriak.

**ONLINE SALTOKIA:**  
[dendaz.azkunazentroa.eus](http://dendaz.azkunazentroa.eus)

**#BONOBILBAO**

Bilbao Kultura Bonua erabili dezakezu Azkuna Zentroko dendAZ saltokiko argitalpenak erosteko.

**SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK**

# Aimar Arriola

## *Forma-desira*

### Ikerketa-proiektua eta programazio publikoa

[Aimar Arriola](#) komisarioak *Forma-desira* proiektuarekin jarraitzen du, [Azkuna Zentroko ikertzaile Az-Kide](#) gisa. Proiektua 2020ko udazkenean jarri zen abian, zentroko programazioaren barruan queer-kuir ikuspegiaren eta artearen presentzia areagotuko zuen berezko lan-ildoan garatzeko gonbidapenari erantzunez.

Urtebete igaro da ikerketa hasi zenetik, eta, gaur egun, proiektua bi eremu edo arloren elkargunean dago, eta gune edo eremu horiek bata bestearengana bultzatzen dira. Alde batetik, hausnarketa jarraitua dago "forma" kategoriar buruz, eta desira eta arrarotasunaren nozioek dualismoak birpentsatzen laguntzen diguten moduari buruz, hala nola makurrak, azalera-sakonera, edo jarduerapasibotasuna –gorputz gisa eratzen gaituzten eta inplikazio politikoak dituzten bereizketak-. Bestalde, espermentazioa dago, ikerketa-metodo propio batekin, aldi berean diskurtsiboa, plastikoa eta entzutekoa izan nahi duena.

Bertako eta nazioarteko artistekin elkartrukea da ikerketa honen metodologia nagusia, eta bi ekintza motatan zehazten da: elkarrizketak eta idatzizko ekarpenak (Orriak), aldizka modu digitalean argitaratuak; eta ekoizpen iragankorrek eta/edo ekintza publikoak artista horien eskutik (Ekintzak), tailerrak, proiektzioak

edo elkarrizketa publikoak bezalako formatuetan.


Hiruhileko honetan bi ekintza berri zabalduko dira zentroaren programazioaren eta webgunearen bidez:

2021eko Ate Irekien Jardunaldiarekin bat eginez, eta duela urtebete Manu Arregui artistarekin hasitako solasaldiari amaiera emanez, artistak *Forma-desira* proiektuaren harira egin duen ekoizpen berria aurkeztuko da. Argazki finkoen, fotomuntaketen, render-en eta bideo-klipen konbinazioan oinarritutako ohar-egiturarekin, lan honek geometriaren eta gorputzaren arteko erlazioekin espekulatzen du, ekintza performatiboaren bidez, eta espazio birtualen eta beste baliabide plastiko eta kontzeptual batzuen sorkuntzaren bidez.

Halaber, hiruhileko honetan, 'Orriak' argitalpen digitalen bigarren atala argitaratuko da Azkuna Zentroaren webgunean, [Camila Téllez](#) artistak egindako testua, *Transición primaveral* bere proiektuari lotuta; proiektua, berriz, [Eszter Katalinekin](#) batera banpirismoari buruz egindako ikerketa bat da, queer/kuir, autobiografia eta gorputzaren memoriarekin harremanetan jarrita. 'Orriak' serierako idazkiak, gutunaren eta egunkariaren erdibidean, migrantziari,

mugikortasunari eta identitateari buruzko nozioetan sakontzen du, banpiroaren ikuspegitik, jarrera ahul eta arin gisa ulertuta.

Orain arte, [Dogartzi Magunagoicoechea](#), [Manu Arregui](#), [Camila Téllez](#) (Eszter Katalinekin elkarlanean), [Pablo Marte](#) eta [Sands Murray-Wassink](#) artistek hartu dute parte *Forma-desira* proiektuan.



Manu Arregui, 'Angulus rectos' (Angelu zuzenak, 2021), Azkuna Zentroak ekolizia, 'Forma-desira' lanaren testuinguruan.

# Isabel de Naverán

## *Uhina gogoan*

«Contar es escuchar izeneko artikulu batean, Ursula K. Le Guin idazleak ahozko komunikazioaren funtzionamendua amebek sexu-harremanak izateko duten moduarekin parekatzen du, 'informazio genetikoak trukatzuz' egiten baitute. Esaten duenez, bi amebak elkartzen dira, 'nagiak atera, eta pseudopodoak lotzen dituen hodi edo kanal batean urtzen dira [...], beren gorputzen barneko zatiak pasatzen dizkiote batak besteari, hitzez hitz, beren gorputzen kanpoko atalez osatutako kanalaren edo zubiaren bidez'<sup>1</sup>.

*Uhina gogoan* proiektuak horrela funtzionatuko duen idazketa bat entseatu nahi du, trukerako eta eraldaketarako gailu baten modukoa, entzuteko idazketa bat, non tartean dauden aldeek elkar aldatuta ikusten duten.

Joan den martxoan, elkarrizketa bat hasi nuen Lorea Alfaro (Estella-Lizarra, 1982) artistarekin, nolabait honela gertatzen dena: erretratu baten enkargua da abiaburua, eta partekatutako egoerak sortzen dira ondorioz; eta egoera horietan sartu edo beren irudietan parte hartu nahi dut, beren erritmoen barruan jarduten duen beste elementu bat banintz bezala. Baina horrek espazioa eta denbora behar ditu. Gorabehera komun baterako prestatu behar da, mugitzen den eta mugitzen zaituen mugimendu batean sartu behar da, lekuz aldatzen zaituen eta noizbehinka lekuz kanpo uzten zaituen mugimendu batean. Eta beste batzuetan kolokatu ere egiten zaitu, zopatu, kolokatzekak duen zentzu sentsualean, zentzumenen pertzepzioa aldatzekoa».

Isabel de Naverán

---

<sup>1</sup> Úrsula K. Le Guin *Contar es escuchar* en *CONTAR ES ESCUCHAR* (traducción de Martín Shifino), Ed. Círculo de tiza, Madrid, 2018 p.343





Arg. Lorea Alfaro, 2021

# 2021eko deialdia: hautatutako proiektuak

Sei artista eta ikertzaile berrik Lantegia. Ideien Laborategian hasi dituzte prozesuak, Babestu. Sorkuntza garaikideari laguntzeko programarenren deialdi berriaren barruan.



*El panda más dramático del mundo* mugikorraren ohar-blokean idatzitako liburu bat da. Idazteko modu ez hain arduratsua bilatzen da, non ideiarik inozoena benetakoena izan daitekeen, eta aukera egin daitekeen ur edalontzi batean itotzeko min sakonik erakutsi beharrik gabe. Literaturaren egiturak hautsi, idazteko modu fresko eta erakargarri bat bultzatzeko, esaterako, mugikorraren hiztegi prediktiboa edo hizkuntza inklusiboa erabiltzea.

## **M Benito Píriz**

*El panda más dramático del mundo (Munduko pandarik dramatikoena)*

*El íntimo ritmo del azar* ikerketa artistiko pertsonaleko prozesua 2020ko maiatzean hasi zen, ziurgabetasun eta ezegonkortasun sozial handiko une batean. Soinu-instalazioa bezalako ingurune batean ausazkoa denaren kontzeptuak dituen aukerak esploratzeko motibazioa da abiaburua.

## **Jonathan García Lana / Tunipanea**

*El íntimo ritmo del azar: diálogos entre máquinas imperfectas (Zoriaren erritmo intimoa: makina imperfektuen arteko elkarrizketak)*



*Ágil y un placaje* proiektuak eta bera egiteko prozesuaren zati handi batek grabazioaren ezaugarriak eta mugimendua ikertzen ditu, jolasetik bertatik abiatuz, errealitatearen aldi baterako baliogabetzaile gisa hartuta. Prozesuaren fase honetan, grabazioetarako tresnak eraikitzean jarriko da arreta.

## **Ander Perez Puelles**

*Ágil y un placaje (Arina eta plakatze bat)*

*Cosa* esku hartutako gorputzari buruzko ikerketa bat da. Laborategi koreografiko bat, material eta objektu desberdinekin interpretearen gorputzari nola eragin dakioken ikertu nahi duena, irakurketa ugari sortuz. Konposizioaren bidez eta material desberdinak erabiliz, gorputza nola eraldatzen den ikusiko dugu. Hiru ikerketa-lerro irekiko ditugu: forma, mugimendua eta soinua; begirada eta behatzen duenaren iruditerian sortzen dituen interpretazio posibleak izango ditugu ardatz.

**Lidia Zoilo González / Macarena Recuerda Shepherd**

*Cosa. Intervenir un cuerpo (Gauza. Gorputz batean esku hartzea*



Eskulturaren eta performatibitatearen arteko harreman-puntuan kokatzen den *Shifter!* ikerketa- eta sorkuntza-proiektuak –hizkuntza-tradizioak abiadura-palanka itxurako gailuari esateko darabilen terminoa– desbideratzean jartzen du arreta, hor egoera eskultorikoak eta ekintza ingurune performatiboetan artikulatzen baitira. Hortxe, desbideratzeko une horretantxe, hartu nahi du lekua *Shifter!* proiektuak

**Blanca Ortiga**  
*Shifter!*

*So Sad Today* gaur egungo kultura digitalen inguruko ikerketa-proiektu transdiziplinarra da, eta mundu fisikoan garatutako identitateen eta pertsona bakoitzaren mundu digitaletan garatutakoen artean sortzen den frikzioa du ardatz. Proiektuak "disforia digitala" jorratzen du, gure ni digitalarekiko disoziazioak sortutako ondorez sentsazio bereizgarritzat duen kontzeptua.

**Victoria Ascaso**  
*So Sad Today*



**Babestu, sorkuntza garaikidea babesteko programa bereziaren** bidez hautatutako proiektuak profil eta ibilbide desberdinetako artistek zuzentzen dituzte. Horiek guztiak programazioarekin lotuta daude eta beti dute alde publiko bat, bai egindako lanaren bidez, bai sorkuntza-prozesuen bidez.

## ARTISTA AZ-KIDEAK



### Sra. Polariska (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe) *Emakume jakintsuen kontseilua*

Sra. Polariska Kolektiboa (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe), *Artista Az-Kideak*, adineko emakumeen erreferenteen sorrerari eta ahalduntzeari buruzko bere sorkuntza-prozesua jarraitzen dute.

[cargocollective.com/srapolariska](https://cargocollective.com/srapolariska) - [sra polariska](https://www.instagram.com/sra_polariska)



### Laida Lertxundi. *8 Topaketa*

Laida Lertxundi *Artista Az-Kidea* da 2021etik, eta *8 Topaketa* lana garatuko du. Proiektuak zortzi tailer ditu, eta esperimendu pedagogiko bat sortu nahi du instituzio akademikoen mugetatik kanpo.

[laidalertxundi.com](https://www.laidalertxundi.com)

## IKERTZAILE AZ-KIDEAK

Irud.: Helena Goñi, 2019



### Aimar Arriola *Forma desira*

Aimar Arriola *Ikertzaile Az-Kidea* da. *Forma desira* proiektuan jarduten du, artearen eta queer perspektibaren arteko harremanaren inguruko ikerketan, Zentroaren programazioaren barruan sartuta, eta kultura bisualaren esparruko gorputz- eta artxibo-gaien inguruan egin duen lanik berrienarekin lotuko du, arteari eta plastikari buruzko gai espezifikokoekin.

[arriolaaimar](https://www.instagram.com/arriolaaimar) - [aimar.arriola](https://www.facebook.com/aimar.arriola)

Irud.: Matxalen de Pedro



### Isabel de Naverán *La ola en la mente (Uhina gogoan)*

Isabel de Naverán *Ikertzaile Az-Kidea* da 2021etik aurrera. *La ola en la mente* proiektua garatuko du, idazketa somatikoa oinarritua, entzuteko eta kuratoretzako modu gisa.

**Artista eta Ikertzaile Az-Kideak** programak sorkuntza eta ikerkuntza bultzatzen ditu, eta laguntza eman nahi die beren lanen bidez hizkuntza garaikideei buruzko begirada iradokitzailea dakarten artistei. Gonbidapen bidez, hainbat artista eta ikertzaileekin aritzen gara, haien prozesuan laguntzen eta partekatzen, haien proiektzioa sustatzen eta beste sare artistiko batzuekin lotzen.



## Kinu

### Tractora Koop. E.

Tractora Koop. E. artisten kooperatibako [Usue Arrieta](#) eta [Ainara Elgoibar](#) Kinu proiektua garatzen ari dira [Azkuna Zentroan](#), [Kolektibo egoiliarren programaren barruan](#). [Kinu](#) artisten ikus-entzunezko produkzioak programatzeko, ikusteko eta eztabaidatzeko plataforma bat da. Hiru hilean behingo topagune bat, artista bat bere lana erakustera gonbidatzen duena, harekin batera lan-saio bat egiteko, praktika-mota horri eta haren berezitasunei buruz taldean gogoeta egiteko. Proiektuak hiru parte ditu:

#### Aurkezpen publikoak

Hiru hilean behingo saioen hasieran, artista gonbidatuaren lana proiektatu eta jendaurrean aurkezten da, eta, ondoren, solasaldi txikia egiten da. [KINU](#) proiektua [KINU#1](#) saio pilotuarekin hasi zen, [Elena Aitzkoa](#) artistaren eskutik; irailean, [AZko](#) kolektibo egoiliarra zela, [KINU#2](#) saioa izan zen, [Maddi Barber](#) gonbidatuarekin; azaroan [KINU#3](#) saioa izan zen, [Sabine Groenewegen](#) zinemagileari eskainia, eta apirilean [KINU#4](#) izan zen, saio bikoitzean, [Andrés Duque](#) gonbidatuarekin. [Kinu#5](#) [Imogen Stidworthy](#) (Londres, 1963) artistari eskaini zioten, eta bere soinu-lanen, filmen eta multimedia instalazioen aukeraketa bat erakutsi zen.

#### Lantaldea

Aurkezpen publiko bakoitzaren ondoren, artistak zuzendutako saio bat egiten da lantalde egonkor batekin ([Lantaldea](#)). Talde horren dinamika gonbidatutako pertsona bakoitzaren neurria diseinatzen da.

[Lantaldea#1](#) eta [Lantaldea#2](#) lan-saioek

filmatzea izan zuten ardatz, eta ikus-entzunezko pieza bat izan zen emaitza. 16 mm-tan filmatutako pieza bat, kameran muntatua, errebelatua eta saioa egindako egunean bertan proiektatua. [Lantaldea#3](#) saioak beste batzuen materialekin film bat egiteko ekintza izan zuen ardatz, eta [Sabine Groenewegen](#)ek emandako master class-etik abiatu zen.

[Andrés Duque](#) zinemagileak zuzendutako [Lantaldea#4](#) saioan, Augusto Boalek inprobisazioa filmatzeko garatutako teknikak jorratu zituen. Boalek 70eko hamarkadatik garatutako metodologiak -Zapalduaren Antzerkia deitu zuenak- ulertzen du errealitatea eraldatzen duena eraldatzeko ekintza bihurtzen dela.

#### Distirak

Azkenik, proiektua osatzeko, lantaldea eratzten duen pertsona batek testu bat egiten du ([Distirak](#)), Lantalde bakoitzaren esperientzia jasotzeko. Azkuna Zentroan egin zen lehen saioan, Ander Pérez ikus-entzunezko artistak egin zuen [Distirak#2](#) testua. [Distirak#3](#) [Pablo Marte](#) artistaren eskutik atera zen, eta [Distirak#4](#) [Leire Aranberr](#)i artistaren eskutik (Bilbo, 1993). [Distirak#5](#) idazteko lana [Ohiane Iraguen](#) (Bilbo, 1985) idazleak hartu zuen bere gain; izan ere, haren azken langintzak ere lotura estua du soinuarekin eta performatibitatearekin.

Kinu Eusko Jaurilaritzaren Kultura eta Hizkuntza politika-sailarekin elkarlanean burutzen da.

**Kolektibo Egoiliarrak** programaren bidez, hurbileko kolektiboek laguntzen diegu, arte-hizkuntzekin eta kultura garaikidearekin egiten duten lanean, era eta ikuspegi askotatik, eta elkarren arteko konplizitatea bultzatzen dugu kultura-programazioa antolatzeko orduan.

# Deialdiak eta egonaldiak 2021-2022

Sorkuntza artistikoari laguntzeko programa proiektuak sustatzeko hainbat deialdiren bidez egituratzen da, laguntzan, konplizitatean eta elkarrekiko itzulera oinarritutako estrategia batekin.



**Ikusi oinarriak hemen:**  
[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)



## **Komikiaren Nazioarteko Egonaldia**

**Deialdia: Iraila 8 - Urria 13**

Azkuna Zentroak eta *Maison de la littérature de Québec* (Kanada) eta *Cité internationale de la bande dessinée et de l'image* de Angoulême (Frantzia) zentroek Komikiaren Nazioarteko lehen Egonaldirako deialdia egin dute narratiba grafikoko proiektu bat garatzeko. Egoitza bakoitzak bere testuinguruko pertsona bat hautatuko du. Hirurek batera hartuko dute egonaldia, elkarren segidan, hiru egoitzetan. Lehendabizi Quebec-en egongo dira, gero Angoulême eta, azkenik, Bilbon. Beste zentro batzuk ezagutzeak, beren espazioa zalantzan jartzeak eta beste batzuen aurkitzeak aukera emango die beren mundu pertsonala eta sortzailea birdefinitzeko. Hiru hiriak ibai batek zeharkatzen ditu, eta horrek haien nortasuna, gizarte- eta kultura-ohiturak eta ekonomia definitzen ditu. Hori izango da aukeraturako egoiliarrek garatu beharreko proiektuaren oinarria. Horrela, toki horiek eta haien arteko elkarguneak eta desberdintasunak berraztertuta ahal izango dituzte, ezagutzeko teknikoak eta esperientziak trukatzeko batera.

## **Dantza garaikidearen egonaldia**

**2022ko apirilera arte**

Dantza garaikidearen egonaldia, Dansateliers Rotterdam (Holanda) sorkuntza- eta erakusketa-zentroarekin lankidetzan egiten da. Egonaldi hau dantzako profesionalentzat da eta bi etapatan garatzen da. Lehenengoa Azkuna Zentroan, pieza koreografiko baten ikerketa eta sorkuntza prozesuan ardatzuta; eta bigarrena Rotterdamen, egoiliarrek Dansatelierekin taldearen aholkularitza eta mentoring artistikoa izango baitu han..

## **Lanean. Prozesu artistikoei**

**Etengabeko deialdia**

Obra eszenikoak ekoizten laguntzeko deialdia. Lanean-en bidez, sortzaileek baldintza material eta espazial egokiak dituzte arte biziarekin eta Zentroaren programazioarekin lotutako proiektuak garatzeko



Essie Anastro. BIO-INT-DIA



# HEZKUNTZA PROGRAMA

## HEZKUNTZA PROGRAMA


# Komikiari buruzko ezinbesteko elkarrizketak

Komikteka aktibatzekeo prozesuaren barruan, urritik abendura bitartean, lehen bitartekaritza-zikloa egingo da, komiki amerikarraren, europarraren, espainiarraren eta mangaren munduko ezinbesteko figuretako batzuen inguruan. Topaketa horietan, irakurle helduen ohiko komunitateak eta publiko berriek aukera izango dute eleberrri grafikoaren sortzaileen lanari buruz hitz egiteko eta hausnartzeko.

Mediateka BBK. Teka 202

Sarrera dohainik alde  
aurretik Az Infon edo  
azkunazentroa.eus helbidean  
izena emanda

bbk 




**Hugo Pratt: *La balada del mar salado***  
Osteguna, urriak 7  
18:30 - 19:30



**Will Eisner: *Contrato con Dios***  
Osteguna, urriak 28  
18:30 - 19:30



**Carlos Giménez: *Paracuellos***  
Osteguna, azaroak 18  
18:30 - 19:30



**Osamu Tezuka: *Adolf* (v.1)**  
Osteguna, abenduak 16  
18:30 - 19:30

## Bilbao Argazki, tailerra eta argazki-irteera

Urriak 24, igandea

Haurrei zuzenduta. Sarrera dohainik, edukiera bete arte  
Izen-ematea: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)



 [bilboargazki.com](http://bilboargazki.com)

## HEZKUNTZA PROGRAMA

# Txikitekako esperientzia berriak



**Txikiteka** jakintzarako eta sorkuntzarako bilgune eta espazio bat da, 0 eta 12 urte bitarteko haurrei eta beren familiei zuzendua. Funts bibliografiko inprimatuaren, eta ikus-entzunezko eta informatikako funtsaren bidez egituratzen da, kultura-programazio baten bidez, hitza ardatz hartuta.

Uztaila eta iraila bitartean, Mediateka

BBKren haur / familientzako espazio honek esperientzia berriak proposatuko ditu kultura eta arte garaikidearen inguruan, balioetan oinarritutako hezkuntza, genero-ikuspegia eta belaunaldien arteko topaketa lantzen dituzten proposamenen bidez.

Jarduera-programa webgune honetan kontsulta daiteke: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

### TXIKITEKARA SARTZEKO BALDINTZAK

Erabiltzaileak ate nagusitik sartu, eta Mediateka Galeriarira doan atetik irtengo dira Espazioan sartu aurretik, eskuko gela erabili beharko da.

Edukiera: 16 pertsona eta 8 gehiago ikaskuntza-eremuan

#### Zerbitzu aktiboak

- Itzultzeak eta mahai-jokoak (espazioan erabiltzeko)
- Zerbitzu ofimatikoa:
- Ikaskuntza-eremurako sarbidea:
  - Gehienez 2 ordu
  - Gehienez 8 eta 12 urte arteko 8 haur

Gehienez ordubetez egotea gomendatzen da, ikaskuntza-gunean izan ezik, hor bi orduz egon baitaiteke.



## Tailerra: soinu-arte eta musika esperimentalaren hastapenak

Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa

Tailer teoriko eta praktikoa, non era ludiko eta atseginean, musika esperimental eta soinu-arte garaikidea hurbilduko die gazte eta nerabeei, XX. mendeko mugimendu eta artista garrantzitsuenetik, soinu eta pertzepzioak plastikoki esperimentatzera.

Oier Iruretagoienak gidatuko ditu saioak.

////////////////////////////////////

**Azaroak 8 > 12**  
**Astelehena > Ostirala**

11:00 - 13:00  
Lantegia 2

Hikuntza: Euskara eta gaztelania 15-30 urte ikastetxeekin eta Lanbide Heziketako zentroekin itundua

////////////////////////////////////

---

## Rafael Martínez del Pozo

Tailerra: *Escuchando, hacia una música anterior a sí misma*

Hotsetan. Azkuna Zentroaren musika esperimentalako eta soinu-arteko programa

Rafael Martínez del Pozo musikariak *Escuchando, hacia una música anterior a sí misma* tailerra emango du abenduaren 17tik 19ra, musika eta soinu esperimentalako Hotsetan programaren barruan. Topaketa horretan, testu-ariketa eta -argibide batzuen bidez, parte-hartzaileek soinua duten formak sortuko dituzte, ezagutu daitekeenetik erdi-musika partekatura, gorputz arrotzak ekartzeko ekosistema gisa ulertutako musikara.

Proiektuak jarraipena ematen dio artistak 2017an ber-abiarazi zuen ikerketa-lanari, zeinak Sesiones de Protomúsica behin-behineko izena zuen. Musikariak azaldu duenez, «hainbat pertsonaren artean egingo dugu musika. Musika: Leku batean, aldi baterako iraupen bat, non entzunezko egoera bat partekatzen dugun eta soinuak sortzen esku har dezakegun (edo ez). Gu ikustea ere bada, mugitzea... Bi arau errespetatzen ditugu: Lehenik eta behin, parte-hartzaile guztiak entzun ahal izatea, bakarka sortzen duten soinuaren anplitudea edozein dela ere. Bigarrena, gainerako parte-hartzaileek egiten duten soinuak ez baldintzatzea».

////////////////////////////////////

**Abenduak 17 > 19**

**Abenduak 17, ostirala**  
17:00-20:00

**Abenduak 18, larunbata**  
10:00-14:00 eta 15:00-17:00

**Abenduak 19, igandea:**  
18:00 Aurkezpena jendaurrean

Lantegia 1

Informazio gehiago hemen:  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)

////////////////////////////////////

## HEZKUNTZA PROGRAMA

# Tailerra Asier Irazabal eta Hernan Quipildorekin

Asier Irazabal eta Hernán Quipildor artistek *La Llave del Alma* (Fatxada Proiektua, 2020ko uda) aurkeztuko dute tailer honetan, errealitatea funtsezko elementuak oinarri hartuta ulertzeko proposamen bat. Tailerrean erakutsiko dute nola erabili sinbologia enpatia garatzeko.

Artisten arabera, «enpatia teknologia organiko bat da, bide ematen dio denbora eta espazioa gainditzen dituen konektibitateari, eta intuizio osoagoa garatzen du gizakiaren esanahiari buruz».

*La Llave del Alma* lana artistak berrikuntza eta sormena partekatzeko asmoz prestatzen ari diren Aita proiektuaren lehen ikusizko adierazpena da. Hizkuntza sinboliko bat proposatzen du, hamabi ikurren bidez trebetasun enpatikoa eta arimaren teknologia garatzeko erabil daitekeena. Sinbolo bakoitzak kontzeptu primario bat adierazten du, hala nola beldurra, aukera, espazioa, itzaropena, heriotza, denbora, gorrotoa, maitasuna, kontzientzia, izatea, argia eta esanahia. Helburua da sinbolo horiek erabiltzea, esanahi garbiko hizkuntza bat izateko eta gizakiok elkar hobeto ulertzeko.

Hobeto ulertuta eta enpatia garatuta, intuizioak sustatzea da tailerraren helburua, pertsoneri hobeto ulertzen eta izatearen kontzientzia zabaltzen laguntzeko.

Arteetan eta sormen-prozesuen intimitatean interesa duten helduei dago zuzenduta. Tailerrean aurkeztzen diren kontzeptu asko *El Gesto* liburuan daude. Hemen deskargatu daiteke doan:

**<https://www.aita.media/the-gesture>.**

Gainera, materialak emango dira, aurkezpena osatzen eta parte-hartzaileekin hitz egiten laguntzeko.

////////////////////////////////////

**Urriak 19 eta 20, asteartea eta asteazkena**

TK202. Mediateka BBK

Sarrera dohainik, leku guztiak bete arte, aurrez webgunean izena emanda

////////////////////////////////////

 [www.aita.media](http://www.aita.media)

 [www.aita.media/the-gesture](http://www.aita.media/the-gesture)

 [@thegesture\\_](https://www.instagram.com/thegesture_)

## HEZKUNTZA PROGRAMA

# Mitusu, haur eta gazteentzako antzerki aretoa

arte eszenikoekin egingo dute topo, **Mitusuk** eta Azkuna Zentroak jorratutako proiektuaren bidez. Programak hiru antzerki-proposamen eta hamar emanaldi ditu, ikastetxeekin itunduak.

### Marie de Jongh

#### *Ikimilikiliklik*

Antzerki bisuala eta musikala

«Txirristi mirristi, gerrena plat, olio zopa, kikili salda, urrup, edan edo klik, ikimilikiliklik» abesten zuen Mikel Laboa euskal kantariak eta denok sorgin bat imajinatzen genuen.

Ikuskizun honetako protagonista sorgin bilakatuko den neska bat da, baina ez da protagonista bakarra, hitza ere bada, ezinbesteko elementu dramatikoak baita. Feten 2020 saria, espazio eszeniko onenari.

### Zumzum teatre

#### *Zapata-kaxa batean bizi zen neska*

Antzerki bisuala eta musikala

*Zapata-kaxa batean bizi zen neska* lanean, antzerkigintzak eta teknologiak ikuskizun oso poetiko eta dibertigarria eskaintzen digute. Narratzailearen ahotsak ikusle txikiak gidatuko ditu istorioan zehar eta protagonista txikiaren abestiekin, haren beldur eta fantasia mundua islatuko duten irudi proiektatuekin, agertokiaren erdiko kutxa handi gorpuzdunarekin eta horren inguruan ustekabeen agertu eta desagertuko diren pertsonaia aldakorrek nahastuko da.

### Teloncillo

#### *Baltasar jaunaren animaliak*

Testurik gabea

Orro egiten duen katu bat, miau egiten duen txakur bat, kua-kua egiten duen behi bat eta zaunka egiten duen ahate bat aurkituko dituen gizon baten istorioa da hau. Animaliak, garraibideak, koloreak, hizkiak... umorez eta jolasez beteriko mundu bat.

Hitzik gabeko ikuskizuna, nortasunaz, nor eta nolakoak garen hausnartzeko, geure buruari eta besteei begiratuz eta ustekabearen magiaz gozatuz.

## IKASTETXEEKIN ITUNDUA

### Marie de Jongh

#### *Ikimilikiliklik*

Azaroak 29, astelehena  
9:30 eta 11:30

Publikoa: Lehen Hezkuntzako  
5. eta 6. mailak  
Euskara

Auditorioa

### Zumzum teatre

#### *Zapata-kaxa batean bizi zen neska*

Azaroak 30, asteartea  
Abenduak 1, asteazkena  
9:30 (9:45) eta 11:30

Publikoa: Lehen Hezkuntzako  
lehen zikloa  
Euskara

Auditorioa

### Teloncillo

#### *Baltasar jaunaren animaliak*

Abenduak 2, osteguna  
Abenduak 3, ostirala

9:30 (9:45) eta 11:30

Publikoa: Lehen Hezkuntzako  
lehen zikloa

Auditorioa

## HEZKUNTZA PROGRAMA

### Josune Urrutia

#### Onko

Sorkuntza garaikideari laguntzeko Babestu programako Josune Urrutia artista egoiliarak hainbat ekintza proposatzen ditu hiruhileko honetarako, *Onko* proiektuaren barruan garatzeko.

Arte- eta osasun-gaiei buruzko pentsamendu, hausnarketa eta sorkuntzarako zeharkako gunea da *Onko*. Gaixotasunak dituzten pertsonak, osasun- eta kultura-arloko erabiltzaileak eta profesionalak, eta gai horiekiko interesa duten pertsonak biltzen ditu.

Ildo horretan, artistak planteatzen duen lehen ekintza da gogoeta egitea eta narratiba berriak sortzea gaixotasunarekiko esperientzia pertsonalari eta kolektiboari buruz. Horretarako, Guruzetako ospitaleko osasun-profesionalekin batera, gailu metodologiko bat diseinatu eta prestatuko du, edozein pertsonak ekintzan parte har dezan.

Hurrengo ekintzan, elkarketa bat izango da gaixo dauden pertsonekin, eta aurrez planteatutako kit metodologikoa praktikan jartzea proposatzen da. Gainera, argitalpen bat sortuko da gertatutakoaren laburpen gisa, eta tailerren emaitzekin batera diseinatutako kit-a sartuko da bertan.

Proiektuaren amaieran, topaketa ireki bat egingo da argitalpena aurkezteko, eta lan-prozesua eta proiektuan lortutako ikaskuntzak partekatzeko.



Gaixotasunak dituzten adin guztietako pertsonen eta haien senideei zuzendutako jarduerak



 [josuneurrutia.com](http://josuneurrutia.com)

Argazkia: Alejandro Nafía



**JOSUNE URRUTIA** Artista, ilustratzaile eta marrazkilaria gisa, interes berezia du komunikaziorako eta sozializaziorako funtsezko baliabide gisa marrazketa behar duten prozesuetan eta tresnetan, hala nola Graphic recording-ean, osasun-munduko medikuntza grafikoan eta marrazketa kolektiboko prozesuetan.

*Irati Inoriza. Nadie se baña dos veces en el mismo río, sino en el parlano mismo (hor ez da bi aldiz bainatzen ibai beran, urtegi berean baizik)*







# Osasun Premium: Ariketatik harantz

Jarduera Fisikoko Zentroak 60 urtetik gorako pertsonak artatzeko programa integral berri bat jarriko du abian urrian, haien bizi-kalitatea hobetzeko, ezagutzak eta gaitasunak helaraziko dizkieten jardueren eta tailerren bidez.

Osasun Premium berri honekin arreta pertsonalizatua eskainiko da, norbere bilakaera gauzatu ahal izateko jarduera-intentsitate desberdinekin, eta aukeratzen diren ikastaroak egiteko ordutegi erosoan, hala igerilekuan, nola gimnasioan.

## Osasun Premium-ak eskaintzen dituen zerbitzuak:

- Gimnasia sarrera, lurrean eta uretan zuzendutako jardueraz gain.
- Jarraipen pertsonalizatua:
  - Denboraldi hasierako eta amaierako egoera fisikoaren proba
  - Datu medikoak biltzea Training Gym-ekin
  - Gluzemia (hilerok)
  - Tentsioa (hilerok)
  - Inbody (hilerok)
- Jardueraren batera joatearen aldizkako segimendua

## Osasun Premium jarduerak:

- Osasun Funtzionala
- AquaSalud
- Osasun Igeriketa
- Igeriketa terapeutikoa
- Osasun Aquadantza
- Aquafitness
- Osasun Kardiohegatsak
- Poolbike
- Osasun Streching
- Osasun Fitpilates
- Osasun Dantzazum
- Osasun Big Dance
- Osasun Pilates
- Osasun Yoga
- Sasoian egoteko osasun gimnasia
- Multigym

## Tarifak:

41,80€

65 urtetik gorakoentzako deskontua:% 25

## Leku mugatuak:

Programan parte hartzen duten pertsonen ahalik eta arreta onena eskainiko zaiela bermatzeko, gehienez ere 50 pertsonak hartuko dute parte..

# Mediateka BBK-k kutxatila automatikoak instalatu ditu maileguak emateko eta jasotzeko

Zerbitzuak eguneratzen jarraitzeko, [Mediateka BBK-k](#) ekipamendu berria jarriko du hiruhileko honetan, liburuak eta ikus-entzunezko materiala eman, erreserbatu eta itzuli ahal izateko. Liburuak emateko eta itzultzeko armairu automatikoak dira, eta, haietan, Az txartelarekin zuzenean egin daitezke eragiketak, inolako eguneraketaren beharrik gabe.

Erabiltzaileak maileguan duen materiala itzuli, mailegua jaso edo erreserba egin ahal izango du, AZ txartelarekin bere burua identifikatuz, automaileguko makinetan egiten duen bezala. Aldian-aldian, Mediatekako taldeak itzulketak jasoko ditu, eta jada erretiratuta dauden maileguak eta erreserbak birjarriko ditu, hurrengo eskariei leku emateko.

Sistema modular hau aitzindaria da estatuan, eta, lehen fase honetan, hiru kutxatila-modulu izango ditu, eragiketa bakoitzeko bat, eta hainbat tamainatako armairuak, haietan utzi beharreko euskarriaren tipologiaren arabera.

Pantaila nagusi bat du, [Mediatekan](#) jardunean dauden automaileguko ekipoen antzekoa, identifikatutako erabiltzaileari identifikatzea eta eragiketa aktiboak egitea errazteko. Sistemaren modularitateak aukera emango du, zerbitzuaren eskariaren arabera, etorkizunean zabaltzeko, gehien eskatzen diren eragiketak egiteko.


Zerbitzu berri hori [Mediatekako](#) sarbideetik gertu egongo da. Horrela, eragiketa horiek zentroa irekita dagoen orduetan egin ahal izango dira, asteko egun guztietan, Mediateka irekita egon beharrik gabe.

Zerbitzu berri hau erabiltzeari begira, [Mediatekak](#) zerbitzua erabiltzeko gida txiki bat egingo du, eta erabiltzaileei zuzenean jakinaraziko die nola erabiltzen den, martxan jarri eta lehen asteetan.

# Azkuna Zentroa argitalpenak

Azkuna Zentroaren argitalpenen corpusak arte-praktika garaikidea biltzen du, ezagutzeko eta zabaltzeko. Zentroko programazio-lerroen inguruko erakusketen, saiakeren eta liburuen katalogoek osatzen dute.

## Datozen argitalpenak:



## Roma Akademia

Jesús Donairek komisariatutako *Roma Akademia* erakusketaren katalogoa. Erakusketa Azkuna Zentroko hainbat espaziotan dago ikusgai 2021eko urriaren 28tik 2022ko otsailaren 6ra bitartean. 2018-2019 (Processi 146) eta 2019-2020 (Processi 147) promozioetako 45 egoiliarrek Erromako Espainiako Akademiaren izandako egonaldiaren garatutako lanak eta proiektuak biltzen ditu.



## Arquitecturas prematuras

### Valcárcel Medina

*Arquitecturas prematuras* (Arkitektura goiztiarrak) lanak Isidoro Valcárcel Medinaren hirigintzari eta arkitekturari buruz asmatutako proiektu guztiak biltzen ditu. Artista duela hamarkada batzuetatik ari da hiririk eta gure ingurune eraikitik elikatzen, inspirazio- eta ekintza-iturri nagusi gisa hartzen. Ez dira proiektu utopikoak; aitzitik, artistaren beraren arabera, topikoenak dira, tokiari eta, era berean, uneari lotuenak, ez baitituzte bizitzeko moduak diktatzen, bizitza egiteko bestelako moduak proposatzen baizik. Valcárcel Medinaren ekintza pertsonalen multzo bat zabaltzen du, eredu izan daitezkeenak, «baina ezin dutenak inoiz balio eredugarriak izan».

### *Arquitecturas prematuras* *Valcárcel Medina*

Kutxa + hiru koadernotxo  
ISBN 978-84-091733-5-8  
Orrialdeak: 96+96+80

Kutxaren tamaina: 253 x 338 mm  
Argitalpen hiruleduna: espainiera-  
ingeleza-euskara  
PSP 49€

Caniche Editorial, MUSAC eta Azkuna  
Zentroaren koedizioa

Izen bereko erakusketa ikusgai dago MUSACen (León) 2021eko irailaren 26a arte. 2022an Azkuna Zentroan izango da erakusgai, maiatzaren 19tik irailaren 22a bitartean.



ISBN: 978-84-451-3832-8  
formatua: 230 x 167 mm  
Orrialdeak: 323  
Euskara / gaztelania / ingelesa  
PVP: 20 €

## Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik

*Kontzertu guztiak, gau guztiak, dena hutsik* erakusketaren katalogoa. Ana Laura Aláez artistaren erakusketa, Bea Espejok komisariatua eta Azkuna Zentroaren (2021eko maiatzaren 20tik irailaren 26ra) eta Dos de Mayo Arte Zentroaren (CA2M) artean ekoitzia (2019ko azaroaren 8tik 2020ko urtarrilaren 26ra). Erakusketan Ana Laura Aláezen azkenaldiko lanetako batzuk agertzen dira, haren ibilbidearen hasierako beste batzuekin eragin-trukean. Katalogoak artistaren lana kokatzen duten oinarriko testuak ditu, honako hauek eginak: Bea Espejo, Sonia Fernández Pan, Nicolas Bourriaud, María José Belver, Ángel Bados, Paul B. Preciado eta Ana Laura Aláez.



ISBN: 978-84-09-22865-2 / 2021  
Orrialdeak: 400  
Formatua: 220 x 270 mm  
Enkoadernazioa: Tapa biguna;  
Cartoné Kromoa hariz josita  
PVP: 28€

## Mabi Revuelta. Akromatikoa. Partida hilezkorra

Mabi Revuelta artistaren *Akromatikoa. Partida hilezkorra* erakusketaren katalogoa. Susana Blasek komisariatutako eta Azkuna Zentroak (2020ko urriaren 14tik 2021eko urtarrilaren 24ra) eta Madrilako Tabacalera Promoción del Artek (2021) elkarrekin ekoiztutako erakusketa. Proiektuak artistaren ibilbidea berrikusten du eta, aldi berean, Akromatikoa bere azken lana aurkezten du. Katalogoak Susana Blas, Luis Francisco Pérez eta Antonio Guderen testuen bidez osatzen du proiektua.

### Además...



**Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao. Ardoen biltegitik Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentrorra**



**Inoiz ez erreala / Beti egiazkoa**  
Katalogo / Liburua




**Saiakera hemen hasten da**

Azkuna Zentroa argitalpenak **dendAZ. Azkuna Zentroaren Saltokian** eta **dendaz. azkunazentroa.eus**-en erosi ditzakezu

JAITSI  
ERAKUSKETA  
ARETORA



—  
BAJA A LA  
SALA DE  
EXPOSICIONES  
—  
GO DOWN TO THE  
EXHIBITION HALL



# ERAKUSKETAK

2022KO MARTXOAREN 10ETIK 25ERA

## **Cabello/Carceller**

*Canción sobre retrato oscuro*

Komisarioa: Paul B. Preciado

2022KO URRIAREN 27TIK 2023KO OTSAILAREN 26RA

## **Somewhere from here to heaven**

Komisarioa: Garbiñe Ortega

ERAKUSKETA ARETOA

2022KO OTSAILAREN 15ETIK APIRILAREN 24RA

## **Sahatsa Jauregi**

*Aizkora*

2022KO MAIATZAREN 10ETIK IRAILAREN 18RA

## **Isidoro Valcárcel Medina**

*Arquitecturas prematuras*

BAT ESPAZIOA. LANTEGIA.IDEIEIEN LABORATEGIA

2022KO AZAROAREN 29TIK 2023KO OTSAILAREN 26RA

## **Ciencia fricción. Vida entre especies compañeras**

Komisarioa: María Ptqk

MEDIATEKA GALERIA

2022-2023

LAZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BE

EMBAURETA - EXPOSICIÓN - DIBUJOS  
**Ana Laura Aláez**  
Todas las cosas, desde  
las noches, todo vacío

EMBAURETA - EXPOSICIÓN - DIBUJOS  
**Miriam Isasi**  
Resina, arena y glicerina

WOLFGANG HOFFMANN  
MATEO ROMERO BUSTOS  
ARTISTIC INSTALLATIONS  
**José Ramón Ais**  
**Elsie Ansareo**  
**Diego Sologuren**



# AGENDA

## AGENDA

### / HIRUHILEKO HONETAN

URRIAREN 10era arte (2021eko irailaren 16tik)		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Maider Aldasoro <i>Aurrean goxo</i>	Sarrera dohainik	Lab 2. Lantegia	24 orr.
URRIAREN 10era arte (2021eko irailaren 16tik)		PREZIOA	LEKUA	+INFO
9:00-21:00	Karlos Martinez <i>Plan K. Gut</i>	Entrada libre	Jantzizaindegia, Auditorioko ataurra	26 orr.
URRIAREN 10era arte (2021eko irailaren 16tik)		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Irati Inoriza <i>Nadie se baña dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo</i>	Sarrera dohainik	Bat espazioa. Lantegia	32 orr.
URRIAREN 10era arte (2021eko irailaren 16tik)		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Iker Vázquez <i>Az Reality Lab</i>	Sarrera dohainik	Ataria	34 orr.
AZAROAK 3, 4 ETA 5 Asteazkena, osteguna eta ostirala		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Gizarte inklusioari eta arte eszenikoen hezkuntzari buruzko XIII. Jardunaldiak	-		15 orr.
ABENDUAREN 31era arte		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Nestor Lizalde <i>Aquelarre eléctrico</i>	Sarrera dohainik	Terraza	
OTSAILAREN 6era arte (2021eko urriaren 29tik)		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	<i>Roma Akademia</i>	Sarrera dohainik	Erakusketa Aretoa Lantegia Mediateka BBK Ataria	22 orr.

## AGENDA / URRIA



<b>URRIAK 1 / Ostirala</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
19:30	Zinemaldia Azkuna Zentroan <i>Arthur Rambo</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	55 orr.
<b>URRIAK 2 / Larunbata</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
12:00	Zinemaldia Azkuna Zentroan <i>Dragoiaren gidaria /Drachenreiter</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	55 orr.
18:30	Zinemaldia Azkuna Zentroan <i>Marocco / Mikado</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	56 orr.
20:30	Zinemaldia Azkuna Zentroan <i>Les illusions perdues</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	56 orr.
<b>URRIAK 3 / Igandea</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
12:00	Zinemaldia Azkuna Zentroan <i>Elfinak / die heinzels – Rückkehr der heizelmännchen</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	56 orr.
18:30	Zinemaldia Azkuna Zentroan <i>Mi iubita, mon amour</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	56 orr.
20:30	Zinemaldia Azkuna Zentroan <i>Tout s'est bien passé</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	56 orr.
<b>URRIAK 6 / Asteazkena</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
17:00	Jean-Pierre Melville. <i>24 heures de la vie d'un clown (1946) + Le silence de la mer (1949)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	52 orr.
18:30	Irati Inoriza: <i>Irati Inoriza en conversación con Caterina Avataneo</i>	Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus-en izena emanez gero	Bastida Aretoa	32 orr.
<b>URRIAK 7 / Osteguna</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
18:30 – 19:30	Komikteka. Hugo Pratt: <i>La balada del mar salado</i>	Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus-en izena emanez gero	Mediateka BKK. Teka 202	74 orr.
19:30	Jean-Pierre Melville. <i>24 heures de la vie d'un clown (1946) + Le silence de la mer (1949)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	52 orr.
<b>URRIAK 8 / Ostirala &gt; URRIAK 10 / Igandea</b>		PREZIOA	PREZIOA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Penique Productions <i>Hutsean ontziratzen</i>	Entrada libre	Kulturen Ataria	58 orr.
<b>URRIAK 13 / Asteazkena</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
17:00	Jean-Pierre Melville.. <i>Bob le flambeur (1956)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	52 orr.
18:30	Francisco López. <i>Criaturas Sónicas</i>	8€ / 5€ Az Txartelarekin	Auditoria	44 orr.
<b>URRIAK 14 / Osteguna</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
19:30	Jean-Pierre Melville. <i>Bob le flambeur (1956)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	52 orr.

## AGENDA / URRIA

<b>URRIAK 14 / Osteguna &gt; URRIAK 21 / Osteguna</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Film Sozialak	-	Golem Alhóndiga Zinemak	48 orr.
<b>URRIAK 16 / Larunbata URRIAK 17 / Igandea</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Open House	-	-	-
<b>URRIAK 19 / Asteartea</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
18:30	Emakume jakintsuen kontseilua <i>Topaketa Teresa Catalanekin</i>	Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus-en izena emanez gero	-	30 orr.
<b>URRIAK 21 / Osteguna</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Laida Lertxundi. V Topaketa <i>Taller con Clara Schulmann: The Compagny she Keeps</i>	Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus-en izena emanez gero	-	46 orr.
<b>URRIAK 22 / Ostirala</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Laida Lertxundi. V Topaketa <i>Rodaje en Mugarra</i>	Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus-en izena emanez gero	-	46 orr.
<b>URRIAK 24 / Igandea</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Bilbao Argazki <i>Tailerra</i>	Sarrera dohainik, edukiera bete arte	-	59 orr.
<b>URRIAK 25 / Astelehena</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Zinemakumeak gara!	4€	Auditorioa	48 orr.
<b>URRIAK 26 / Asteartea</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
18:30	Consejo de sabias <i>Topaketa Rosa María Calafekin</i>	Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus-en izena emanez gero	-	30 orr.
<b>URRIAK 27 / Asteazkena</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
17:00	Jean-Pierre Melville. <i>Deux hommes dans Manhattan (1959)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	52 orr.
<b>URRIAK 28 / Osteguna</b>		PREZIOA	LEKUA	+INFO
18:30 - 19:30	Komikteka. Will Eisner: <i>Contrato con Dios</i>	Sarrera dohainik aldez aurretik Az Infon edo azkunazentroa.eus helbidean izena emanda	Mediateka BBK Teka 202	74 orr.
19:30	Jean-Pierre Melville. <i>Deux hommes dans Manhattan (1959)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	52 orr.

## AGENDA /AZAROA



AZAROA 3 / Asteazkena		PREZIOA	LEKUA	+INFO
17:00	Jean-Pierre Melville. <i>Léon Morin, prêtre (1961)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	52 orr.
18:30	Los Bárbaros <i>De la A a la Z</i>	7€ / 5€ Az Txartelarekin*	-	15 orr.
20:00	Les Impuxibles <i>Suite TOC n° 6</i>	7€ / 5€ Az Txartelarekin*	Ataria	36 orr.
AZAROA 4 / Osteguna		PREZIOA	LEKUA	+INFO
19:30	Jean-Pierre Melville. <i>Léon Morin, prêtre (1961)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	52 orr.
20:00	Cia. Colectivo Mur <i>Detuatu</i>	7€ / 5€ Az Txartelarekin*	Ataria	38 orr.
AZAROA 10 / Asteazkena		PREZIOA	LEKUA	+INFO
17:00	Jean-Pierre Melville. <i>Le doulos (1962)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	53 orr.
AZAROA 11 / Osteguna		PREZIOA	LEKUA	+INFO
19:30	Jean-Pierre Melville. <i>Le doulos (1962)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	53 orr.
AZAROA 13 / Larunbata > AZAROA 20 / Larunbata		PREZIOA	LEKUA	+INFO
Ordutegia webgunean kontsultatu	Zinebi. 63. Bilboko Zinema Dokumentalaren eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdia	+info: zinebi.eus	Golem Alhóndiga Zinemak	49 orr.
AZAROA 15 / Astelehena		PREZIOA	LEKUA	+INFO
17:00-20:00	John Richards <i>Tailerra</i>	18/12€ Az Txartelarekin	-	45 orr.
16 DE NOVIEMBRE / Martes		PREZIOA	LEKUA	+INFO
17:00-20:00	John Richards <i>Tailerra</i>	18/12€ Az Txartelarekin	-	45 orr.
17 DE NOVIEMBRE / Miércoles		PREZIOA	LEKUA	+INFO
17:00-20:00	John Richards <i>Kontzertua</i>	12/10€ Az Txartelarekin	Lantegia 1	45 orr.

\* Txartelarekin Sarrera dohainik Gizarteratzeari eta Arte Eszenikoen Hezkuntzari buruzko XIII. Jardunaldiaren izena emanda dauden laguntzat

## AGENDA / AZAROA

AZAROA 18 / Osteguna		PREZIOA	LEKUA	+INFO
18:30 - 19:30	Komikteka. Carlos Giménez: <i>Paracuellos</i>	Sarrera dohainik alde zurretik Az Infon edo azkunazentroa.eus helbidean izena emanda	Mediateka BBK. Teka 202	74 orr.
18:30	Sands Murray-Wassink <i>performancea Aimar Arriolak lagunduta</i>	Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus-en izena emanaz gero	Lantegia 1	28 orr.
AZAROA 19 / Ostirala		PREZIOA	LEKUA	+INFO
17:00	Jean-Pierre Melville. <i>L'Armée des ombres (1969)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	53 orr.
AZAROA 25 / Osteguna		PREZIOA	LEKUA	+INFO
19:00	Cía. Daniel Abreu <i>La desnudez</i>	15€ / 12€ Az txartelarekin / 65 urteko gorakoentzat / 30 urtetik beherakoentzat / Ikasleak	Auditorioa	40 orr.
19:30	Jean-Pierre Melville. <i>L'Armée des ombres (1969)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	53 orr.

## AGENDA /ABENDUA



ABENDUAK 1 / Asteazkena		PREZIOA	LEKUA	+INFO
17:00	Jean-Pierre Melville. <i>Le cercle rouge (1970)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	53 orr.
ABENDUAK 2 / Osteguna		PREZIOA	LEKUA	+INFO
19:30	Jean-Pierre Melville. <i>Le cercle rouge (1970)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	53 orr.
ABENDUAK 10 / Ostirala		PREZIOA	LEKUA	+INFO
11:30 - 20:30	This Is Basque Design Merkatua	Sarrera dohainik	Kulturen Ataria	17 orr.
ABENDUAK 11 / Larunbata		PREZIOA	LEKUA	+INFO
11:30h - 20:30h	This Is Basque Design Merkatua	Entrada libre	Atrio de las Culturas	17 orr.
ABENDUAK 12 / Igandea		PREZIOA	LEKUA	+INFO
11:30 - 14:00	This Is Basque Design Merkatua	Sarrera dohainik	Kulturen Ataria	17 orr.
ABENDUAK 15 / Asteazkena		PREZIOA	LEKUA	+INFO
17:00	Jean-Pierre Melville. <i>Un flic (1972)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	53 orr.
ABENDUAK 16 / Osteguna		PREZIOA	LEKUA	+INFO
18:30 - 19:30	Komikteka. Osamu Tezuka: <i>Adolf (v.1)</i>	Sarrera dohainik, aurrez azkunazentroa.eus-en izena emanez gero	Mediateka BBK. Teka 202	74 orr.
19:00	Núria Guiu <i>Spiritual Boyfriends</i>	16€ / 12€ Az Txartelarekin	Auditorioa	42 orr.
19:30	Jean-Pierre Melville. <i>Un flic (1972)</i>	5€ / 4€ Az Txartelarekin	Golem Alhóndiga Zinemak	53 orr.

## INFORMAZIO OROKORRA

### ZENTROAREN ORDUTEGIA

Egunero 9:00etatik 21:00etara.

### BISITA GIDATUAK

#### **BISITA GIDATUAK ERAIKINETIK**

Ordubeteko ibilbidea Alhóndigatik, eraikinaren historia, eraldaketa eta egungo proiektua ezagutzeko.

##### **Partikularrak**

- Asteartea eta asteazkena, 17:30 (euskara), 18:30 (gaztelania).
- Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoreen.

##### **Taldeka**

- Eguna eta ordua adostuz, gutxienez 72 ordu lehenago, AZ Infon, 944 014 014 telefonoan edo info@azkunazentroa.eus helbide elektronikoa bidez.
- Prezioak:  
Euskaraz edo gaztelaniaz: 50 € taldeentzat / 25 € elkarte eta ikastetxeentzat  
Ingelesa edo frantsesa: 75 € taldeentzat / 50 € elkarte eta ikastetxeentzat

#### **ERAKUSKETARAKO BISITAK**

- Ordu erdiko sarrera-ibilbideak, erakusketa-gelan ikusgai den erakusketa testuinguruan kokatzeko .
- Ostegunero, 18:00etan eta 19:00etan (euskaraz edo gaztelaniaz, eskaeraren arabera).
- Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoreen.

**Edukiera:** 10 pertsona.

Kopuru hori aldatu egin daiteke osasun-egoeraren bilakaeraren arabera.

### AZ TXARTELA

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu. Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

Gogoan izan Az txartela pertsonala eta besterenezina dela. Zurekin ekarri behar duzu beti, AZ Infon sarrerak erosterakoan deskontuak izateko.

### GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu golem.es webgunean.

### YANDIOLA, THE BOAR, HOLA BAR

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu yandiola.com webgunean.



## IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroa errespetuzko gunea da, irekia eta guztientzat irisgarria. Espazioa eta programazioa etengabe hobetzeko lan egiten dugu, publiko-komunitate guztiek esperientzia gogobetezkoa izan dezaten, sorkuntza-prozesuetan parte hartu ahal izan dezaten eta kultura baldintza berdinetan probatu, partekatu eta gozatu ahal izan dezaten. Xehetasun bereziren bat kontsultatu nahi baduzu, zatoz AzInfora, Atarian dagoen informazio-gunera.



Azkuna Zentroak Irisgarritasun Unibertsaleko AENOR ziurtagiria du, UNE 170001-1 arauaren arabera.

## JASO NAHI DUZU GURE ALDIZKARIA ETXEAN EDO POSTA ELEKTRONIKOZ?

Eskaneatu QR hau edo sartu [bit.ly/revista-az](https://bit.ly/revista-az) helbidean, eta bete formularioa, nola, zein hizkuntzatan eta non jaso nahi duzun esateko.



## AZKUNA ZENTROA, GUNE SEGURUA

Azkuna Zentroak zorrotz betetzen ditu osasun-agintariak COVID-19aren aurrean ezarritako jarraibide guztiak. Zentroko jarduerak berariazko protokoloak, edukiera egokituak eta ibilbide seguruak kontuan hartuta egiten dira, eta plangintza berezita garatu da espazioak egunero eta behin eta berriz garbitzeko eta desinfektatzeko. Gainera, zentroko langileek berariazko prestakuntza- eta kontzientziatze-plana bete dute COVID-19aren prebentzioari dagokionez, eta, horren bidez, Azkuna Zentroak indartu dezake ezarritako osasun-neurrien betetze-maila.

### Gogoan izan:



Zure maskara erabili



Distantzia mantendu



Espazioetara sartu baina lehen eta irteterakoan



Ez ukitu aurpegia



Ez ukitu azalera komunak. Egiten baduzu, garbitu eskuak



Erabili bakarrik beharrezkoa bada eta adierazitako edukiera errespetatuz



Ordaintzeko, txartelarekin hobe

Informazio osoa kontsulta ezazu:

